

Informazio

# Agerkaria

206

2012ko  
urtarrila  
enero  
2012

# Boletín


Informativo



Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatuen  
Bazkun  
Ohoretsua

Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya

Mintzaira Juridikoa



## Mementos + Bases de Datos

# Nace la SimbiosisPerfecta

La integración de los Mementos de Francis Lefebvre con la Base de Datos de El Derecho ha creado una herramienta de trabajo única para los profesionales del derecho. Más eficaz y rápida que ninguna otra. Capaz de ofrecer la solución más rigurosa, actualizada y completa en cada momento. La integración perfecta entre precisión y exhaustividad en un solo producto.

Conozca la simbiosis perfecta en: [www.elderecho.com/mementos](http://www.elderecho.com/mementos)

**A** le honetan, aldizkariak elebitasun osoaren sistema alde batera utzi du, eta argitaratutako testu batzuk gure bi hizkuntzetako batean zein bestean agertuko dira. Hala ere, irakurleak nahi duen hizkuntzara jo ahal izango du argitaratutako edukia ikusteko, Bazkuneko web orrira jota ([www.icasv-bilbao.com](http://www.icasv-bilbao.com)). Orri horretan, euskara hutseko bertsioa dago eta aldizkaria osorik jaitzi daiteke AGERKARIAK hegalean klikatuta. Modu berean, gaztelaniazko edizioan, webean BOLETINES hegala dago, eta bertan azken urteetako aldizkariak daude.

Hizkuntza-berrikuntzen ildo horretan, atsegin handiz hartu da estatuko administrazioaren eta gure autonomia erkidegoko administrazioaren artean lankidetzaz hitzarmena sinatzea estatuko administrazioan legeruna duten arauak euskaraz argitaratzeko. Beraz, BOEn testuok euskaraz agertuko dira.

Hizkuntzari buruzko gaia alde batera utzi gabe, garrantzitsua da aurreko Ministroen Kontseiluak sortutako Hizkuntza Modernizatzeko Batzordearen ondorioen eta gomendioen txostena, hizkuntza egokitzeko arauetan, komunikabideetan, ahozko azalpenetan eta auzitegiaren inprimakietan. Txosten horretan herritarrek hizkera juridikoa ulertzeko eskubidea dutela bildu da, herritarrek baitira hizkuntzarekin deskribatzen diren egoeren benetako protagonistak. Hala ere, askotan hizkera ilun, zaharkitu eta zaileko idazkiak eta testuak erabili behar izaten dituzte.

Hizkera modernizatu, argitu, sinplifikatu eta zuzentzeko, interes handiko gomendio batzuk egiten dira eta gure jardun profesionalen gehitu beharko ditugu apurka-apurka.

Informaziorako, komunikaziorako eta lanerako baliabideak hobetzera bideratutako ekimenen bidez, aurre egin ahal izango diegu etorkizuneari iritsiko diren lege-aldaketari.

Besteak beste, gaur egungo estatuko gobernuaren legegintza-proiektuak aipatu behar dira, hala nola Botere Judizialaren Lege Organiko berria, Mugape eta Antolaketari buruzko Lege berria barruti judizialaren kontzeptua eguneratzeko, Merkataritza Kode berria, Prozedura Kriminalaria Lege berria, Borondatezko Jurisdikzioaren Lege berria, Bitartekaritza Lege berria, eta eraldaketa partzialak sexu- eta ugaltze-osasunaren Lege Organikoan eta haurdunaldia borondatez etetea, eta Adingabearen Erantzukizunari buruzko Lege Organikoaren arauketa berria. Modu berean, aldian aldiko bete eraldaketa batzuk proiektatu dira, hala nola egon dauden tasek eta gordailu judizialen balizko berrikuspena eta zigor-erakunde batzuk sartzea, esaterako berrikusteko moduko espetxeratze iraunkorra.

Badirudi zigor-erakunde larri horrek salbuespen izaera izango duela gizaritate-bazterketaren gorengo maila lortu duten kasuetan, hau da, zigor baten aplikazioa biktimek komunikabideetara jo eta iritzi interesatua sortzeko duten gaitasunaren arabera izango da, eta horren inguruarik astunagari arriskutsua izango da jardun horretatik komunikabide handiek irabazi handiak eskuratu ahal izango dituztela.

Ez dugu iritzirik emango, aipatu eraldaketak oraindik proiektuak baino ez baitira, ez baitaude ez materializatuta ez garatuta. Hala ere, kezka handia da guztiok lortu nahi genuen estatu sozial eta demokratiko horren arauak inboluzio-joera dutela. Ikusiko dugu.

**E**ste es el primer número de un renovado Boletín que abandona el sistema de bilingüismo en la totalidad de la revista introduciendo, sin embargo, la utilización indistinta de nuestras dos lenguas en los textos de cada número editado. No obsta lo anterior para que cada lector pueda elegir la lengua que prefiera para visualizar los contenidos editados, acudiendo a la web del Colegio ([www.icasv-bilbao.com](http://www.icasv-bilbao.com)) que tiene una versión total en euskera donde se podrá entrar para poder descargar el boletín en su edición íntegra en esta lengua acudiendo a la pestaña AGERKARIAK. Del mismo modo, en su edición en castellano la web tiene una pestaña: BOLETINES donde se encuentran las revistas de los últimos años.

En esta línea de innovaciones lingüísticas es acogida con satisfacción la firma del Convenio de colaboración entre la Administración estatal y la de nuestra Comunidad autónoma para la publicación de normas de la administración de Estado con rango de ley en lengua vasca en la que aparecerán en el BOE.

Sin abandonar la reflexión sobre el lenguaje, resulta notablemente importante el informe de conclusiones y recomendaciones de la Comisión de Modernización del Lenguaje creada por el anterior Consejo de Ministros para la adecuación del lenguaje en las normas, los medios de comunicación, las exposiciones orales y las plantillas procesales. En este informe se recoge el derecho de los ciudadanos a comprender el lenguaje jurídico puesto que son los reales protagonistas de las situaciones que con él se describen a pesar de lo cual, en no pocas ocasiones, se enfrentan a escritos y textos de lenguaje abigarrado, obsoleto y de difícil comprensión.

En orden a conseguir modernizar, aclarar, simplificar y corregir el lenguaje se realizan una serie de recomendaciones de enorme interés que deberemos ir introduciendo en nuestro actuar profesional.

Estas iniciativas tendentes a la mejora de nuestros medios de información, comunicación y trabajo podrán servirnos en nuestra lucha por afrontar los cambios legislativos que se avecinan.

Entre ellos se encuentran los proyectos legislativos del actual gobierno estatal que incluyen; una nueva Ley Orgánica del poder Judicial, nueva Ley de Demarcación y Planta para actualizar el concepto de partido judicial, nuevo Código Mercantil, nueva Ley de Enjuiciamiento Criminal, nueva Ley de Jurisdicción Voluntaria, Nueva Ley de Mediación, además de reformas parciales en la Ley Orgánica de salud sexual y reproductiva e interrupción voluntaria de embarazo y nueva regulación de la Ley Orgánica de Responsabilidad del Menor. De igual manera se proyectan otras reformas puntuales como la posible revisión de las tasas y depósitos judiciales ya existentes y la introducción de figuras penales como la prisión permanente revisable.

Esta grave figura penal parece que pretende ser de carácter excepcional para supuestos que hayan alcanzado un máximo grado de repulsa social, lo que viene a ser lo mismo que hacer depender la aplicación de una pena de la capacidad de las víctimas para acceder a los medios de comunicación generando un estado de opinión interesado, con el agravante peligroso que supone que tal maniobra sea profundamente lucrativa para los grandes grupos de comunicación.

No es prudente pronunciarse cuando las referidas reformas aún son sólo proyectos no materializados ni desarrollados, pero resulta, al menos, inquietante la tendencia involutiva de las normas de ese Estado social y democrático de Derecho al todos aspiráramos siempre. Veremos.



**Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatu  
Bazkun  
Ohoretsua**  
**Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya**

**Decano / Dekanoa**  
Nazario Oleaga Páramo

**Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea**  
Ana Bermejo Arteagabeitia  
Beatriz Barquín Torre  
Ignacio Alonso de Errasti

**Colaboradores / Laguntzaileak**  
César Gallastegi Aranzabal  
Nahia Llonza Fernández  
Jorge Marqueta Andrés  
Eduardo Ranedo Fernández  
Idoia Manzarraga Zamalloa  
Alberto Martínez Ruiz

**Fotografía / Argazkigintza**  
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>  
[elboletin@icasv-bilbao.com](mailto:elboletin@icasv-bilbao.com)

Depósito Legal / Legezko gordailua  
2.069/1987

# ¡Hasta la vista!

Libérate ya de tus gafas o lentillas mediante la Corrección Visual por Láser de Clínica Baviera

En Clínica Baviera aprovecha ya esta **promoción limitada para ti y tus familiares directos** en los tratamientos de CORRECCIÓN VISUAL POR LÁSER, **por ser miembro del Cº DE ABOGADOS DE VIZCAYA.**



**IMPRESINDIBLE  
PRESENTAR ACREDITACIÓN**  
en la 1ª visita a Clínica Baviera.

Tarifas válidas hasta 31/12/12. Promoción no acumulable a otras ofertas.

2012ko urtarrila  
enero 2012

06

## BERRIAK



06

10

## INFORMAZIOA

Gaztelaniazko eta euskarazko hizkera  
juridikoaren inguruko albiste garrantzitsuak

Banketxeetako bezeroen babesa



08

14

## JARDUNALDIAK

Zigor kodearen eraldaketari buruzko  
alderdi batzuk



10

18

## BAZKUNEKO LIBURUTEGIA



14

20

## LEGEGINTZA BERRITASUNAK



25

22

22

## KULTUR ERANSKINA



## ESKU-HARTZE JUDIZIALA ABOKATUAREN ETA BEZEROAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOETAN

**Abokatuzaren Kontseilu Nagusiko Batzorde Juridiko Aholkulariaren barruan legelari ospetsuak, katedradunak, Estatuko abokatuak, Estatu Kontseiluko legelariak, magistratuak daude eta aholkularitza-batzordeari zerbitzua eskatzen dio garrantzi juridikoa duten gai zehatz batzuetan.**

Beraz, egindako Irizpenaren xedea argia da, hots, defentsa-eskubidea ukitzearen problematika aztertzea telefono bidezko komunikazioen esku-hartzearen eraginez. Aurreko hori Prozedura Kriminalaren Legeko 579. artikuluan araututa dago.

zigor-ikerketaren barruan komunikazioak atzemateko gaitzen duen baimen orokorra da, izaera orokorrekin.

Horregatik, doktrinak eta jurisprudenzia aho batez uste dute **bezeroaren eta abokatuaren arteko komunikazioak EKren 24.2 artikuluko defentsa-eskubideak babesten dituela, eta PKLren 579. artikulua ez dela komunikazio horietan esku hartzea ahalbidetzen duen titulua**, esku-hartze horrek defentsa-eskubidea deuseztatuko luke eta.

- Auzitegi Gorenko eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiako jurisprudenziarekin bat etorritik, abokatuaren eta bezeroaren arteko komunikazioetan esku-hartzea salbuespen moduan soilik adostu daiteke, komunikazioaren izaera aldatzen denean **zantzu oinarri-dunak daudelako legelaria bezeroarekin lankidetzan ari dela delitua gauzatzeko.**

- Batzordearen Irizpenean planteatutako egitate zehatzari dagokionez, zantzuak daude abokatuaren eta bezeroaren arteko komunikazioen esku-hartzea borondatez egin zela, informazio babestua esku hartzen ari zela jakitun egon arren. Inguruabar hori dela eta, grabazio horien edukia ez litzateke frogatzen moduan hartu beharko.

- Edonola ere, **abokatuaren eta bezeroaren arteko komunikazioak ezin dira izan baliozko frogak**, bezero horren defentsa-eskubideari kalte konponezina egingo litzaioke eta.



Xede horretarako, 2011ko azaroaren 30ean irizpen bat eman zuten abokatuaren eta bezeroaren arteko komunikazioen esku-hartze judizialari buruz eta horrek zigor-prozesuaren barruan defentsa-eskubidean dituen ondorioei buruz.

Irizpena gertaera juridiko garrantzitsu eta gaur-gaurko batek eragin zuen. Lapurretan informatikarako sare baten jardura batzuk ikertzen ari zirela ("Caso Anonimo" izeneko) Gijóneko 4. zenbakiko Instrukzioko Epaitegiko epaile titularrak ustezko delitu-sarearen liderra izan zitekeenari telefono-elkarrizketak entzutea agindu zuen.

Epaileak emandako aginduaren ondorioz, grabatutako elkarrizketa batzuetan akusatua keta abokatuak kasuaren zigor-inplikazioei buruz hitz egiten zuten, baita defentsarako estrategia posiblei buruz ere. Grabazio horiek sumarioan sartu dira.

Egoera horretan, Batzordeak planteatu du ea ikertutako pertsonaren eta bere abokatuaren arteko elkarrizketen grabazioa baliozko frogak izan daitekeen kasuan kasuko zigor-prozesuan.

Modu horretan, aztertu da ea abokatuaren eta bezeroaren arteko elkarrizketen grabazioa frogatzen legezko aizan daitekeen zigor-prozesuan, eta zehatz esanda, gertaeren inguruan emandako deskripzioari erreparatu ea Batzordeak aztertutako kasu zehatzean onar daitekeen.

Defentsa-eskubidearen eta komunikazioetan esku hartzearen analisi zehatza egin ondoren, Batzordeak ondorio argi eta zehatz hauek atera ditu:

- Abokatuaren eta bezeroaren arteko komunikazioen konfidentzialtasuna eta sekretua EKren 24.2 artikuluan ezarritako defentsa-eskubidearen erdigunea dira. Hala ere, PKLren 576. artikulua

### BAZKUNEKO BERRI LABURRAK

Eskuragai duzue Bazkuneko egoitzetan (Bilboko Uribitarteko aldapak 3-1., Barakaldo, Getxo, Gernika eta Durango) **Prozedura Zibileko Legearen ale batzuk**, urriaren 30eko

37/2011 Legeari egokituak. Legearen edizioa La Ley argitaletxeak egin du Bazkunarentzat. Oraindik badira ale batzuk gure bulegoetan.

## ABOKATUEI BURUZKO MIKROKONTAKIZUNEN III. LEHIAKETAKO IRABAZLEA

**Epaimahaiak Jordi Bolumar Arnóren ‘Mala Praxis’ mikrokontakizunari aipamen berezia eman zion.**

**Lehiaketako edizio guztietan 20.000 mikrokontakizun inguruk parte hartu dute.**

Javier Sánchez Ribasen ‘Vocación’ mikrokontakizunak Abokatuei buruzko Mikrokontakizunen III. Lehiaketa irabazi du. Lehiaketa Abokatutzaren Mutualitateak eta Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak antolatuta dute eta 2010eko urria eta 2011ko iraila bitartean 5.500 mikrokontakizun baino gehiago jaso ziren.

Epaimahaiko kideak izan dira Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko eta Abokatutzaren Mutualitateko ordezkariak, Juan Bolea idazlea keta Eleberriko Abokatuen Sariaren II. Edizioako irabazleak, José Manuel Otero Lastres abokatuak, zuzenbideko katedraduna keta idazleak, eta Agustín Zurita Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Komunikazio zuzendariak.

Modu horretan, 42 urteko abokatu madrildarrak lehiaketako 3.000 euroak irabazi ditu. Saria abenduaren 15ean jasoko du, Abokatutzaren Urteko Konferentziaren barruan.

Collado Villalba (Madril) bizi da, Madrildo Abokatuen Elkargoko kidea da eta 1995etik immigrazio eta asilo arloko abokatu espezialista da. Javier Sánchez Ribasek Gurutze Gorrirako lan egiten du, eta horrez gain, lanbidean modu pribatuan aritzen da.

Epaimahaiak aipamen berezia eman dio Jordi Bolumar Arnó Viceko (Bartzelona) diseinatzaile grafikoari, ‘Mala Praxis’ mikrokontakizunarengatik. Hain zuzen ere, mikrokontakizun hori abuztuko finalista izan zen.

‘Vocación’ kontakizun irabazlea hamabi finalistak artean zegoen, urtarrean irabazle aizan baitzen. Testuan zuzenbideko ikasle gazte batek ispiluaren aurrean auzitegi baten aurkeztutako alegatu handiarekin amets egiten du.

Orain arte, Abokatuei buruzko Mikrokontakizunen Lehiaketako edi-

zio guztietan 20.000 mikro literatura-lanek parte hartu dute. Lehiaketako hirugarren edizio honetako hamabi hilabeteetan, askotariko gaiak jorrazten dituzten testuak jaso dira, hala nola: urriko testu irabazlean bitzita profesionala eta bitzita pertsonala uztartzeko zailtasunei buruz hitz egiten zen; azaroko protagonista terrorismoaren drama izan zen; abenduko finalistak epaitegi bateko pertsonaia bitxia deskribatzen zuen; otsailan, salaketa absurduak egiteko iragarkia agertzen zen; martxoan amaren eta adoptatutako semearen arteko harreman larria kontatzen zen; apirilean, publizista arduragabe batek senar-emazteei egonezina eragiten zien; maiatzean ezkontza luze baten amaiera kontatzen zen; ekainean, urtebetetzeko opari zoro batzuk protagonista ziren; uztailan umezurztegi bateko neskato baten ametsak kontatzen zitzaizkigun; abuztua heriotza, familia eta umore beltza nahasten ziren; eta, amaizteko, irailean bi lapur bitxiren gorabeherak kontatzen zitzaizkigun.

Abokatuei buruzko Mikrokontakizunen III. Lehiaketa honetan jasotako 5.500 testuak hainbat lekutatik iritsi dira. Espainiako ia leku guztietakoak dira, baina Madrildik kontakizun guztien %20 iritsi dira. Kontakizun asko Latinoamerikakoak izan dira, eta Estatu Batuetatik, Europako lekua skotatik eta Zeelanda Berritik ere testuak iritsi dira.

### Mikrokontakizunen Lehiaketaren IV. Edizioa

Azaroan Abokatuei buruzko Mikrokontakizunen IV. Lehiaketa abian jarri da, aurreko edizioetako oinarri bereberekin. Lehiaketa nahi duten guztiei irekita dago. Betekizun nagusiak hauek dira: kontakizun originala izatea, gehienez 150 hitzekoa, eta hilero lehiaketaren mikrogunean argitaratzen diren bost hitzak barruan izatea.

Lehiaketaren aurreko edizioetan egin den moduan, hilero Abokatutzaren Mutualitatearen orrian ([www.mutualidadabogacia.com](http://www.mutualidadabogacia.com)) eta Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren orrian ([www.abogados.es](http://www.abogados.es)), [\[latosabogados.com\]\(http://latosabogados.com\) mikrogunearen bidez, epaimahaiak jasotako kontakizun guztien artean kalitaterik handiena dutenak argitaratuko ditu, hileko irabazlea nor den jakinarazi aurretik. Mikrogunean lehiaketaren aurreko hiru edizioetan hautatutako eta sari-tutako kontakizun guztiak kontsultatu daitezke, baita parte hartzeko oinarriak eta kontakizuna bidaltzeko inprimakia ere.](http://www.microrre-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

### MICRORRELATO GANADOR

Por Javier Sánchez Ribas

#### “Vocación”

Su primer juicio. Se ajustó la toga y contempló la sala de vistas, llena a rebosar, y a su cliente sentado en el banquillo. Un difícil caso de corrupción urbanística, relacionado con la construcción de un hotel de lujo y unos sospechosos recibos de presuntas comisiones pagadas en especie. No había habido pacto entre acusación y defensa, por lo que al final de la vista oral llegó el momento de su alegato. Se levantó, carraspeó y con los andares de John Wayne en “Río Bravo” comenzó diciendo “señores del jurado...” Al terminar, y cuando correspondía con sentidas reverencias a los aplausos del público, escuchó la voz de su madre: “Hijo, ¿por qué no dejas de hacer el canelo ante el espejo, te quitas el traje de tuno y sigues estudiando? Así no vas a acabar nunca la carrera. Siempre que tomas vino con gaseosa para cenar es la misma historia”.

## 1497/2011 ERREGE DEKRETUA, URRIAREN 24KOA, LEGEZTATZE BAKARRA EDO AMAIERAKO OHARRA EGITEKO FUNTZIONARIO ETA AGINTARI ESKUDUNAK ZEHAZTEN DITUENA

**Oharrak eta oharrak erantsita izan behar dituzten agiriak egiteko eskudunak diren agintariak eta funtzionarioak**



1. artikulua Administrazio agirietako oharra

1. Artikulu honetan zehazten diren agiri publikoetan legeztatze bakarraren edo amaierako oharraren izapidea egiteko eskudunak izango dira agintari eta funtzionario hauek:

- a) Auzitegi nagusietako Gobernu idazkariak eta Ceuta eta Melilla hirietakoak edo legez horien ordezkodirenak, baita kasuan kasuko gobernu-idazkaritzetan horien eskuordekoak direnak ere.
- b) Une bakoitzean herritarrari informazioa eta arreta emateko eskumena esleituta duen Justizia Ministerioaren unitateko titularra edo legez horien ordezkodirenak, baita horien eskuordekoak direnak ere.
- c) Justizia Ministerioak nazio osoan banatuta dituen lurralde-kudeatzailetzak edo legez horien ordezkodirenak, baita lurralde-kudeatzailetzetan bertan horien eskuordekoak direnak ere.
- d) Notarioen Elkargoetako dekanok edo legez horien ordezkodirenak, baita horien eskuordeko notarioak ere.

2. Aurreko idatz-zatian zehaztutako agintariak eta funtzionarioak eskudunak izango dira dokumentu hauen legeztatze bakarra edo oharrak egiteko, dokumentu hori nazioko leku batean zein bestean sortu:

- a) Hurrengo hauen organoetako agintariak eta funtzionarioek emandako dokumentuak: Estatuko Administrazio Orokorra edo horren organismo publikoak, Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak, eta nazioaren lurralde osoan edo zati batean eskumena duten mota guztietako erakunde publikoek emandako dokumentuak.
- b) Konstituzio organoetako agintariak eta funtzionarioek emandako dokumentuak.
- c) Autonomia-erkidegoetako administrazio-organoeetako edo horien erakunde publikoetako agintariak eta funtzionarioek emandako dokumentuak.
- d) Toki administrazioen organoetako eta horien erakunde autonomoetako agintariak eta funtzionarioek emandako dokumentuak.
- e) Jabetza Erregistroek, Merkataritza Erregistroek eta Ondasun Higigarrien Erregistroek emandako agiriak eta ziurtagiriak, et ahala denean, Espainiako Jabetza Erregistratzaileen eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoak emandakoak.

### Dokumentu judizialak

Edozein epaitegi eta auzitegitako, zerbiztu prozesaleetako eta Justizia Administrazioaren gainerako unitateetako agintariak edo funtzionario judizialek baimendutako dokumentuen legeztatze bakarraren edo amaierako oharraren izapidea egiteko eskudunak izango dira, dokumentu horiek nazioko leku batean zein bestean egin, eta 4. artikuluan ezarritakoa salbuetsita, Auzitegia Nazionala edo Auzitegi Goreneko dokumentu publiko judizialei dagokienez, agintari eta funtzionario hauek:

- a) Auzitegi Nagusietako Gobernu idazkariak eta Ceuta eta Melilla hirietakoak edo legez horien ordezkodirenak, baita horien eskuordekoak ere kasuan kasuko Gobernu-idazkaritzetan.
- b) Une bakoitzean herritarrari informazioa eta arreta eskaintzeko eskumena esleituta duen Justizia Ministerioaren Unitateko titularra edo legez horien ordezkodirenak, baita horien eskuordekoak ere.

- c) Justizia Ministerioak nazio osoan banatuta dituen lurralde-kudeatzailetzetako lurralde-kudeatzaileak edo legez horien ordezkodirenak, baita lurralde-kudeatzailetzetan bertan horien eskuordekoak direnak ere.

### Notarioaren dokumentuak

Notarioaren dokumentuetan legeztatze bakarraren edo amaierako oharraren izapidea egiteko eskudunak izango dira Notarioen Elkargoko dekanok edo legez horien funtzioak betetzen dituztenak, baita horien eskuordekoak diren notarioak ere, dokumentua nazioko leku batean zein bestean sortu.

### Auzitegi Goreneko eta Auzitegia Nazionala agintariak edo funtzionario judizialek baimendutako dokumentuak

Auzitegi Goreneko eta Auzitegia nazionala agintariak edo funtzionario judizialek baimendutako dokumentuen legeztatze bakarra edo amaierako oharra egiteko eskudunak izango dira, modu eksklusiboan, horien kasuan kasuko gobernu-idazkariak, legez horien ordezkodirenak, edo horien eskuordekoak direnak.

### Erregistro elektronikoa

Paper euskarrian zein euskarri elektronikoa egiten diren dokumentu publiko guztien legeztatze bakarrak edo amaierako oharrak Justizia Ministerioko Amaierako Oharren Erregistro Elektronikoa erregistratu eta gordeko dira. Erregistro hori maiatzaren 4ko JUS/1207/2011 Agindua dela bide sortu zen, Justizia Ministerioko Amaierako Oharren Erregistro Elektronikoa sortu eta arautzen duena eta amaierako oharrak paper euskarrian eta euskarri elektronikoa egiteko prozedura ezartzen duena.

### Amaierako ohar elektronikoen baliozkotasuna

Espanian erabateko baliozkotasuna izango dute Nazioarteko Zuzenbide Privatuari buruzko Hagako Konferentziaren (1961eko urriaren 5ean) XII. Hitzarmeneko beste estatu kontratugile batzuetan legeztatze bakarraren edo amaierako oharraren izapidea egiteko eskumena duten agintariak modu baliozkoan egingutako amaierako ohar elektronikoen baliozkoak izango dira Espainian.

## ABOKATUEK NEURRI ADOSTU ETA ARRANDITSUAK ESKATU DITUZTE JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN TRATATZE ENDEMIKOA ARINTZEKO

**Madril. 2012/01/05.-** Espainiako Abokatuzaren Kontseilu Nagusiak Alberto Ruiz-Gallardón Justizia ministro berriari, karguaz jabetu eta berehala, lankidetzara osoa agertu dio Justizia Administrazioak dituen eta herritarrek eta kolektibo juridiko guztiek jasaten dituzten arazo larriak konpontzeko neurriak aztertu eta babesteko. Hala ere, ministroak abuztua prozesu judizialerako hil balioudun bihurtzeko aukera aipatu duenez, Espainiako Abokatuzaren Kontseilu Nagusiak hurrengo adierazi nahi du:

1.- Gaur egun abuztua baliogabea izatea esparru zibilean eta administrazioarekiko azuzien esparruan soilik dago indarrean, abuztua baliouduna baita lan eta zigor arloko gaiak izapidetzeko. 2012ko 366 egunetan ere, ofizio abokatuek, eguneko 24 orduetan, sortzen den edozein gai jorratuko dute.

2.- Abuztua baliogabe izateak ez dio erantzuten kolektibo zehatz baten aldarrikapenari, Justizia Administrazioa osatzen duten guztiek gizarte-errealitatearen jakitun izateari baizik, legeriak sentikorra izan behar baitu errealitate horren aurrean eta horretara egokitu behar baitu. Nabarmena eta jakina da espainiar gehienek oporrak udan eta batez ere abuztuan hartzen

dituztela, eta aldi horretan lekukoei, adituei, eta abarri deitzeak ziurrenik "hamar epaiketarik bat" bertan behe-za eragingo lukeela deitutakoak ez agertzeagatik. Hala adierazi dute iturri judizialek. Gainera, jarduera judiziala gutxitzea ez dagokio Espainiari bakarrik eta edonola ere, epaileen eta gainerako funtzionarioen lanorduek eta plantillak handitzen ez badira, ez dago argi nola handitu daitekeen produktibitatea.

3.- Abuztua baliogabea izateagatik gai zibilen eta administrazioarekiko azuzien gaien izapidetza gehienez ere 20 egun atzeratzen da, baina horrek ez du garrantzi handirik, Espainian prozesu judizialak izapidetzeko dagoen batez besteko atzerapena kontuan hartuta. Kasu batzuetan, bereziki gatazkatsuek ez diren galetan, epaiketarik 2014rako edo 2015erako ezartzen ari dira. Beste neurriarik abian jarri gabe abuztua balioudun bihurtuta, uztailan eta irailean epaitegietako jarduera moteldu daiteke, izan ere, epaileek eta gainerako funtzionarioek oporrak hil horietan ere hartu ahal izango lituzkete.

4.- Prozedura judizialetan atzerapenak murrizteko beste modu asko daude, besteak beste, arratsaldeetan epaiketarik egin ahal izatea eta epaitegietan



lan egitea, ordutegiak eta epaiketarik egunak betetzea, produktibitatea handitzea, auzitegiak informatizatea, epaileen eta beste funtzionario batzuen kopurua handitzea, bitartekaritza eta arbitrajea bultzatzea, garrantzi gutxi duten gaiak esparru jurisdikzionaletik ateratzea, etab.

5.- Edonola ere, Espainiako Abokatuzaren Kontseilu Nagusiaren ustez, neurri horiek eraginkorrak izateko eta Justizia Administrazioaren atzerapena arintzeko, eragile juridiko eta administrazio publiko guztien artean eztabaida, adostasuna eta ituna sustatu behar dira. Hori Justiziaren arloko Estatuko Ituna lortzeko aurreko pausoa izango litzateke.

## KIROL ZUZENBIDEKO EUSKAL ELKARTEA SORTU DA

2011ko azaroaren 16an, Bizkaiko Abokatuen Bazkunean, Asociación Vasca de Derecho Deportivo (AVDD) – Kirol Zuzenbide Euskal Elkarte (KZEE) aurkeztu zen; [www.kirolzuzenbidea.com](http://www.kirolzuzenbidea.com)

Elkartearen aurkezpenean, Santi Merino Elkartearen presidentea, Javier Aldazabal Athleticeko zuzendaritza-batzordeko idazkariak eta José Javier Cortázar Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko dekanorordeak parte hartu zuten.

Elkartearen eraketa sustatu duen taldeak kirolaren esparru desberdinetan lan egiten du, arlo publikoan zein pri-

batuan (liga profesionalak, federazioak eta klubak eta kirolaren kudeaketa publikoa), ezagutzak elkarbanatzeko eta beste legeriarientzat etengabeko foroak sortzeko. I+G intelektuala. Hau da, Elkarteak zuzenbidetik abiatuta kirolerako bokazioa duten legeriarientzako gogoeta-foroa izan nahi du, eta kirola sustatzeko eredu berriz pentsatu behar dela aldarrikatzen du.

Arlo publikotik kirolaren kudeaketa sakontzeaz gain, Elkarteak, 2012an, enpresa garrantzitsuak bihurtu diren kirol-klubak gaia jorratu nahi du, eta kirol-zuzenbidearen arbitrajeari edo

gatazkak negoziazioen bidez ebazteari buruzko jardunaldia antolatu nahi du.

Ekitaldian hurrengo hauek ere egon ziren: Juan Carlos Soto eta Gotzon Gondra Elkartearen Zuzendaritza Batzordeko kideak, Fernando San José, Mónica García, Jon Larrea, Alejandro Elejabarrieta, Joseba Fernández, Iñigo Santxo eta Martxel Toledo Esaiten izenean, Iñigo Nagore, Txema Oleaga eta beste hainbat pertsona. Bertaratu kirola zuzenbideko espezialitate izateari, horren ibilbideari eta xehe-tasunean buruzko eztabaida entzun eta horretan parte hartu zuten.

César Gallastegi: Abokatua.

# BERRIKUNTZA GARRANTZITSUAK GAZTELANIAZKO ETA EUSKARAZKO HIZKERA JURIDIKOAREN INGURUAN

## 1. HIZKERA JURIDIKOAREN MODERNIZAZIOARI BURUZKO TXOSTENA ETA LEHENENGO FRUITUAK

Joan den legegintzaldiko azken txanpan, Francisco Caamaño orduko Justizia ministroak Hizkera Juridikoaren Modernizazio Batzordearen ondorioen eta gomendioen txostena aurkeztu zuen.

Batzorde hori Ministroen Kontseiluak sortu zuen, 2009ko abenduaren 30eko akordioaren bidez (ikus BOEren 27. zk., 2010eko otsailaren 1ekoa), Justizia Modernizatzeko 2009-2011 Planaren barruan. Ez da mota horretako lehenengo ekimena izan: 2003an, Justizia Ministerioaren urri-

ri zuzenbideko profesionalek erabilitako hizkerari buruzko txostena aurkeztu behar zion, hizkera hori herritarrentzako argiagoa eta ulergarriagoa bihurtze aldera.

Hauek izan dira Batzordeko kideak: Juan Carlos Campo Idazkaritzako titularra burua izan da; presidenteordea, Víctor García de la Concha, Espainiaren Errege Akademiakoa; eta kide hauek izan ditu: Gabriela Bravo Sanestanislaio, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko eleduna Carlos Carnicer Díez, Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko presidentea; Salvador Gutiérrez Ordóñez, Espainiaren Errege Akademiakoa; Gabriela Cañas Pita, "El País" egunkariko kazetaria; Alex Grijelmo García, Efe Agentziako presidentea; Jesús María García Calderón, Andaluziako Auzitegi Nagusiko fiskalburua; María Peral Parrado, "El Mundo" egunkariko kazetaria, eta Mercedes Bengoechea Bartolomé, zuzenbidearen filosofia irakaslea Alcalá de Henaresgo unibertsitatean. Horien lana aitortzeko, San Raimundo Peñafortekoaren Ordenako lehen mailako Gurutze Agurgarria eman diete.

Batzordearen lanek irauin duten bitartean, zenbait azterlan agindu zaizkie hizkera juridikoaren azterketa zorrotza egiteko. Bi azterlan Batzordeko kideek egin dituzte, eta gainerakoak, zenbait unibertsitatetako ikerketa taldeek. Landa-azterketak dira, Espainian orain arte hizkera juridikoari buruz egindako analisi empirikorik osatuenetakoak, eta Batzordearen eztabaidetan oso lagungarriak izan dira.

Zehatz esanda, azterlanen izena eta edukia hurrengo hau da: "Politika publiko konparatuak" (Comillasgo Unibertsitate Pontifizioan egindakoa; nazioarteko datu ugari eskaintzen ditu, baita hizkuntza koofizialak dituzten autonomia-erkidegoei buruzkoak ere), "Arauen hizkera" (Salvador Gutiérrez Ordóñezek zuzenduta; azterlanean Gaztela eta Leongo Parlamentuko lege-proiektuak aztertu dira, baita BOEtik hartutako lerrun desberdineko beste legezko xedapen batzuk ere), "Hizkera idatzia" (Bartzelonako Unibertsitatekoa; epaiei eta horietako hizkerari buruzko azterketa xehatua egiten du), "Hizkera juridikoa komunikabideetan" (María Peral Parradok zuzendu du; komunikabideek hizkera juridikoan ola erabiltzen duten



Batzordeko kideak ministroarekin (ezkerretik eskuinera, Salvador Gutiérrez, Víctor García de la Concha, Gabriela Cañas, Francisco Caamaño, Juan Carlos Campo, José Manuel Blecua, Alex Grijelmo, Gabriela Bravo, María Peral, Jesús María García Calderón, eta Carlos Carnicer).

ren 30eko 3126/2003 Aginduak (BOEren 270. zenbakian, 2003ko azaroaren 11n argitaratua) Ikerketa Batzorde baten sorrera aurreikusi zuen, lau hilabeteko epean txosten bat egin zezan eragile juridiko guztiek eta legelariak erabilitako hizkera berritu eta modernizatzeko prozesua sustatzeko aldera. Batzorde hori inoiz ez zen eratu eta, beraz, Gobernuak emandako eginkizuna inoiz ezin izan zen osatu.

Aitzitik, Hizkera Juridikoa Modernizatzeko Batzordea 2010eko otsailean eratu zen, Estatuko Justizia Idazkaritzari atxikita. Hamabi hilabeteko epean Ministroen Kontseilu-

aztertzen du, hau da, prentsa idatziak eta digitalak, irriatiak, telebistak eta albisteen agentziek), "Ahozko hizkera" (Valentziako Unibertsitatean egin da; justiziako profesionalak teknolekto juridikoa nola erabiltzen duten aztertzen du, baita erdi mailako herritarrarentzat horrek sortzen dituen zailtasunak ere) eta "Inprimaki prozesalak" (Salamanca Unibertsitatean egindako azterlan honetan, dokumentu judizialak aztertzen dira eta eranskin batean, Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentazio judiziala aztertu da, interes berezia duelako).

Bestalde, azken txostenak, sarreraz gain, atal hauek ditu: "Ulertzeko eskubidea", "Gomendioak profesionalak", "Gomendioak erakundeak" eta "Gomendio erantsia" (komunikabideei zuzenduta). Azken finean, txostenean hizkuntza-zuzentasunari buruzko gomendioak jaso dira eta zenbait adibide eman dira idazki juridikoen idazketa hobetzeko. Horrez gain, hizkera juridikoaren modernizazioa eta zuzentasuna bultzatzeko zenbait neurri proposatzen dira.

Hain zuzen ere, azken ideia horri lotuta, dagoeneko desegin den Batzordearen lanaren lehen fruitua atera da. Hizkera juridikoaren argitasuna sustatzeko ituna da, 2011ko abenduaren 21n hurrengo hauek sinatu zutena: Espainiako Errege Akademiak, Justizia Ministerioak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak, Jurisprudentziaren eta Legegintzaren Errege Akademiak, Espainiako Prokuradoreen Kontseilu Nagusiak eta Espainiako Zuzenbide Fakultateetako Dekanoen Konferentziak. Ituna dela bide, hizkera juridikoaren argitasunerako Batzordea sortu da eta Hizkera Juridikoaren Modernizaziorako Batzordearen azken txostenera bildutako beste deia bat zehaztu da: hizkera juridikoaren erabilera onari bi urterik behin sariak ematea.


**2. LEGEAK EUSKARAZ ARGITARATZEKO HITZARMENA**

Euskarazko hizkera juridikoari dagokionez, 2011ko urriaren 6an, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean lankidetzat-hitzarmena sinatu zen lege lerruna duten Estatuko legeak euskaraz argitaratzeko.

Zehatz esanda, BOEko eranskin berezi batean Estatuko legeak, errege dekretu-legeak eta legegintzako errege-dekretuak euskaraz argitaratu dira. Gerora izaera orokorreko beste xedapen batzuk ere argitaratu ahal izango dira.

Orain arte, mota horretako testuak BOEn gaztelaniaz argitaratzen ziren baina ez zuten euskarazko itzulpenik (hori Euskal Autonomia Erkidegoko legeekin eta Nafarroako Foru Komunitateko legeekin soilik betetzen zen).

Hori dela eta, euskal legelariak Espainiako legeriaren testurik garrrantzitsuenak soilik zituen itzulita (adib. Kode Zibila, Zigor Kodea, Prozedura Zibilaren Legea, Prozedura Kriminalaren Legea...



Testu horiek zuzenbideko titulazioa euskaraz duten euskal unibertsitatean itzuli dira gehienbat, hau da, Deustuko Unibertsitatean eta EHU-UPVn, erakunde publikoekin lankidetzan). Aurrerantzean Estatuko legeria guztiaren itzulpen sistematikoa bermatuta dago. Gainera, Euskal Legebiltzarrak onartutako legeak BOEn argitaratu dira, lehen aipatutako eranskinen eta formatu elebidu-nean.

Modu horretan, Espainiak Eskualde Hitzuntzen edo Hitzuntza Gutxituen Gutunean hartutako konpromisoe-tako bat betetzen da. Dakigunez, Europako Kontseiluak 1992an onetsituen Gutuna. Espainiak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi zuen. Zehatz esanda, Espainiak esanbidez onartutako 9.3. artikuluan ezarrienez, "nazioko lege-testu nagusiak eskualde-hitzuntzetan edo hizkuntza gutxituetan irisgarriak izango ziren".

Eginbehar hori euskaraz betetzen ez zela behin eta berriro salatzen da Gutunaren betetze mailari buruzko aldizkako txostenetan, testu horren 15. artikuluan ezarritakoak.

Mota horretako testuak hizkuntza koofizialetan argitaratzeko aukera aspaldian ezarrita zegoen (apirilaren 14ko 489/1997 Errege Dekretua, legeak autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialean argitaratzeari buruzkoa) eta zenbait fruitu emanda zituen, beste hizkuntza koofizial batzuetan egindako BOEko eranskin batzuetan.

Hain zuzen ere, BOEko eranskinak ditu katalanez, valentzieraz eta gailgez. 1998an hitzarmenak zintu ziren Kataluniarako eta Galiziarako, eta 2000n Valentziako Erkidegorako. Gainera, dinamika horren barruan, interes handiko beste akordio batzuk egin dira, hainbat gai jorratuz, hala nola: hitzarmenak egin aurreko estatuko legeria guztia hizkuntza koofizialean argitaratzea eta hitzarmena duten autonomia-erkidegoetan zein hitzarmenik ez duten baina hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoetan egindako itzulpenak bultzatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, hitzarmena abian jarrita, joan den abenduaren 1etik, xedapen orokorren izenburuak euskaraz argitaratzen dira (hau da, izenburua bakarrik, ez artikulua) eta hiru testu osorik itzuli dira (horietako bat argitaratuta dago: abenduaren 2ko 119/2011 Errege Dekretu-legea, urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretu-legea, Kreditu Entitateen Gordailu Bermearen Funtza sortzeko, aldatzen duena; beste biak itzultzen ari dira: abenduaren 30eko 20/2011 Errege Dekretu-legea, aurrekontu, tributua eta finantza arloko presako neurriak buruzkoa defizit publikoa zuzentzeko, eta horren akats-zuzenketa).

Hitzarmena kontsultatu nahi izanez gero (iraupena bost urtekoa da printzipioz), 254. zenbakiko BOEra jo dezakete, 2011ko urriaren 11kora, edo 209. zenbakiko EHAra, 2011ko azaroaren 4kora, testuaren edukia bertan argitaratu zen eta.

# BANKUKO BEZEROEN BABESA



Francisco García-Escárzaga González  
Zuzenbideko doktorea  
Abokatua

Oraintsu bankuko zerbitzuen bezeroaren gardentasunari eta babesari buruzko EHA/2899/2011 Agindua argitaratu da. Agindu horrek bezeroen babes-estandarra bermatu

eta zabaldu nahi du, bankuko produktuen informazio-asimetriaren eraginak murriztuz. Agindu berri hau, aurretik argitaratutako beste batzuk bezala, Ekonomia eta Ogasun ministroari kreditu-entitateen diziplinari eta antolamenduari buruzko Legeak emandakoa ahalmena dela bide eman da, finantza-erakundeen eta bezeroen artean egindako konpromisoei eta eragiketa bakoitzari dagozkion gorabeheren aurreko eskubideei gehiengo gardentasuna emateko. Arauaren zioen azalpenean argi uzten denez, helburu hirukoitza lortu nahi da; testu bakarrean gardentasunari buruzko oinarritzko araudia lortzea, bankuko bezeroa babesteari buruzko arauak gaurkotzea erakundeen gardentasun-eta jarrera-betebeharrak hobetuta, eta, amaitzeko, mailegu arduratsu izenekoak garatzen da, Ekonomia Jasangarriaren Legean esandakoaren ildotik.

Azken kontzeptu horri helduta, ñabartu egin behar da arauak *mailegu arduratsu* deitzen duena dela bankuak kreditu neurrigabea iritsi arte egiten ari zirena. Bezeroaren gaitasunaren ebaluazioa horren kaudimena aztertzeko berriaz garatutako prozeduren bidez (lan-egoera eta horren kalitatea, diru-sarrerak, ondare-gaita-



SANDRA SÁNCHEZ ECHEVARRÍA lankideak EGOITZA PROFESIONALA ALDATU DU. Aurretiaz hemen egongo da: Elkano 5, 7. esk., Bilbo. Tfnoa. 944356262. Faxa 944356263. Mugikorra 639 76 94 75.

BULEGOA ALOKATZEN DA Bilbo erdian, eraikin enblematikoan. Abokatuaren lantokiaren barruan, argi naturalarekin eta 3 lei-hate handirekin eta balkoiarekin. Recalde zumakalearen eta Colon de Larreategiren arteko bidegurutzean. Idazkaritza-zerbitzua eta deiak hartzeko zerbitzua. (Telefonoa 944003083).

34 m<sup>2</sup>-ko BI BULEGO ALOKATZEN DIRA kanpoko terrazarekin, biak Pozas kalera begira. Gainera, komuna eta bezeroak hartzeko

gel aditu. Alokairuaren prezioa 550 €/hilean da, erkidegoko gastuak, argia eta ura barne hartuta. Berogailu zentrala eta atezaintza-zerbitzua ditu. Deitu Mónica: 676 40 30 19.

ABOKATUEN BULEGOA FUNTZIONAMENDUAN ALOKATZEN DA. 13 m<sup>2</sup> Ercilla kalearen erdian. Bilera gela eta idazkaritza gunea banatzeko aukera edo sarrera independentea izateko aukera. Prezioa adosteko. Interesatuak deitu 944 05 41 23 zenbakira edo idatzi hona: msabogados@msabogados.Eu.

Jarduneko abokatuak LANKIDEA BILATZEN DU BULEGOA BANATZEKO ETA LANKIDETZA PROFESIONALETARAKO. Bulegoa erdialdean, Epaitegiaren ondoan. Oso ona da lanbidean hasteko. Harremanetarako

telefonoa: 630122205. Posta elektronikoa: ikerpujadas@icasv-bilbao.com

Bilboren erdialdeko lantokiak, Epaitegitik oso hurbil, BULEGOAK ALOKATZEN DITU jarduneko abokatuentzat. Telefonoa: 699914302

BULEGO INDIBIDUALAK ALOKATZEN DIRA lantoki kolektiboaren barruan. ERDIALDEAN" Interesatuak deitu hona: 683.63.94.03

BULEGOA ALOKATZEN DA LANTOKI KOLEKTIBOAN erdialdean (Justizia Jauregiaren ondoan), zerbitzu guztiak barruan hartuta (idazkaria, argia, wifia, telefonoa, faxa, etab.). Harremanetarako telefonoa: 94.423.72.99.

IRAGARKI  
TAULA  
TABLÓN DE  
ANUNCIOS

sun, finantza-gaitasuna eta dirua itzultzeko gaitasuna, etab.) eta kreditu-historiaren kontsulta rai, asnef, cirbe, eta abarren bidez da bankuen modus operandi tradizionala, eta hortik ezin da desbideratu. Gainera, kontuan izan behar da mailegua denboran atzeratutako aldaketa-kontratua dela eta bankuak mailegatutako kopurua ematean hobetzen duela, dirua itzultzeak duen arriskua bere gain hartuz gehi itundutako interesak, enpresa-mozkina ematen dutenak. Ez dago ezer berririk; are gehiago arauak berak esaten badu aurreikusitako kaudimena- ren ebaluazioa kontratazio-askatasuna gorabehera egingo dela. Hau da, berriro ere borondatearen autonomiara itzultzen gara, hemeretzigarren mendeko legelariaren espirituak aldarrikatu zuena.

Ministroen aginduak hipotekari lotutako kreditu-errealitatean ere gardentasuna arautzen du, alderantzizko hipoteka barruan sartuta. Orain arte indarrean zegoena indargabetu du (1994ko maiatzaren 5eko Agindua). Horretarako, 2/09 Legea erabili du, hipoteka izapidetzeko prozedura luze eginez: lehen informazio-liburuxka eta eskaintza loteslea; orain, sartzeko gida, kontratua-rena urreko informazioa (fipre), informazio-fitxa pertsonalizatua (fiper) eta eskaintza loteslea. Hori guztia hipoteka-maileguaren

eskritura egin aurretik. Nire ustez, kontsumitzailearen gardenta- suna eta babesa eraginkorrak izateko, informazio horrek simple aizan behar du irizpide praktikoa moduan. Notarioak egileste- egintzan dituen eginkizunei dagokienez, 1994ko maiatzaren 5eko agindu indargabetuak berrikuntza moduan jaso zituenen oso antzekoak dira.

Arauk entitateek eman behar duten informazioa ere arautzen du, hala nola interes-tasei, interes-tasa ofizialei, urteko tasa baliokideari eta lurzoru klausulei (ez dira deusezak abusuzkoak direlako, kontraprestazioen oreka justuari erantzun behar diete) buruzkoa.

Bestalde, bankuko beste kontratu batzuetan nagusi izan behar den gardentasuna ere arautzen da, hala nola gordailua, ordainketa-zerbitzuak eta kredituak kontsumoari. Azken hori oraintsu 16/2011 Legeak arautu duen arren, aipatu agindua or- deztailea da Legeak arautzen ez dituen arloetan.

Arauari eskertu egin behar zaio bankuko kontratuen babesa arautzeko egindako ahalegina. Nire ustez, hori da arauak egi- teko dinamikak izan behar duen norabide zuzena berez horren kaotikoa den lege-mundua ez kolapsatzeko.

## IMQ Abogados

Todo lo que  
le pedimos  
a un seguro  
médico

## Un seguro médico pensado en exclusiva para ti y tu familia

- **Completa cobertura sanitaria.**
- **Sin esperas.**
- Libre elección entre una **amplia red de profesionales.**
- **Centros propios** y acceso a **las principales clínicas privadas** de Euskadi.
- **Prestigiosos centros a nivel nacional.**
- **Sin copagos** (excepto psicoterapia y copagos especiales).
- **Seguro de accidentes** para el titular de la póliza desde sólo 5,13 €/mes\*.
- **Descuentos** por forma de pago y por número de beneficiarios.
- **Importantes ventajas fiscales.**

\* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

Desde  
sólo  
40,55  
€/persona/mes

  
Tu seguro médico

902 311 902  
agencia@imq.es  
www.imq.es

Iker Martínez y Xabi Fernández  
Medalla de oro JJOO Atenas 2004  
y plata Beijing 2008  
Regatistas de BAT Basque Team

IMQ, Aseguradora  
Médica Oficial de 

# ZIGOR KODEAREN ERALDAKETARI BURUZKO ALDERDI BATZUK



Martin Bilbao Lorente, Inigo Ortiz de Urbina eta Norberto de la Mata

Joan den azaroaren 9an, gure Elkargoaren egoitzan, Praktika Juridikoko Eskolak antolatuta, Norberto de la Mata lankidearen zuzendaritzapean, Zigor Kodearen azken eraldaketari buruzko jardunaldi hau egin zen. Eraldaketa ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoak egin du, joan den abenduaren 23tik indarrean dagoenak.

Ikastaroa labur aurkeztu ondoren, hasteko, Jaime Goyena Huerta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskalburuak hartu zuen hitza. Ondarearen arloko zigor zuzenbidean egindako berrikuntzak jorratu zituen, eta zehatz esanda, ahalordetze delituan, maula berrien delituan eta beste gai batzuetan, hala nola usurpazioan, kalte informatikoetan egin diren berrikuntzak eta kaudimengabeziaren delituetan izandako aldaketak aipatu zituen.

Ahalordetze delituei dagokienez, hizlariak 234. artikuluko aldaketa aipatu zuen, hau da, ebas-keta-falta errepikatzea (delitua izateko lau falta barik hiru falta izan behar dira); ebasketaren zigorra areagotzea, delitua egiteko hamalau urtetik beherako adingabeak erabiltzen direnean;

ZKren 239. artikuluan ezarritako giltza faltsuaren kontzeptua zabaltzea, eta indarkeriaz egindako lapurretaren edo larteria areagotua, ZKren 242. artikuluko bigarren paragrafoak sartutakoa, bizilagunak dituen etxean edo etxe horretako edozein gelatan egiten denean.

Maula berriei dagokienez, oro har, hizlariaren esanetan, maula delituak egitura klasikoari eta betekizunei eusten die, baina maula modalitate berria sartu da, 248.2 artikuluko c) letran; maula hori egin daiteke bai kreditu-edo zordunketa-txartel bat edo bidaia-txeke bat zuzenean erabilia, bai agiri horietako edozeinetan dauden datuak erabiliz.

“  
**Paragrafo horren ondorek garrantzitsuena kreditu-txartela modu ilegítimoan erabilia dirua ostearen tipifikazioa aldatzea izango da**  
”

Hala ere, hizlariaren iritziz, arauketa berri horren baliagarritasuna ez da ondo ulertzen, une honetara arte maula modalitate horiek ZKren 248. artikulua aplikatuz zigortzen baitziren. Hala ere, paragrafo horren ondorek garrantzitsuena kreditu-txartela modu ilegítimoan erabilia dirua ostearen tipifikazioa aldatzea izango da. Hizlariaren esanetan, lege-eraldaketa bitxia da maulei dagokienez,

horren bidez legegariak ez du-eta delitu berria tipifikatu nahi edo zigorra larriagotu edo arindu nahi, delituaren kalifikazio juridiko-penala aldatu baino.

Era berean, 249 c) artikuluan beste maula modalitate bat esanbidez tipifikatu da, phising izenekoak. Horretan, subjektu aktiboak lortzen du biktimak datu pertsonal sekretuak adieraztea "gizarte-ingeniaritzako teknika" izenekoak erabiliz (mezuak, posta elektronikoa, web orriak...), eta horrela kontu korronteetarako sarbidea lortzen du.

Edonola ere, fiskalaren esanetan eraldaketa hori erabilgarria izan daiteke maula delitua makinekin edo gailu elektronikoen egindako iruzurrezko eragiketetan aplikatzeko aukera baztertzeko zuten (haien ustez makinak ezin baitira engainatu) iritzi batzuk bertan behera uzteko. Aurretik, jarrera horiek gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta moduan zigortzen ziren, eta hori delitu horren interpretazio hedakor eta behartua zen, eta ez zeukan zerikusirik kasu horiekin.

Azpimota horrekin batera, maulari dagokion kualifikazioen eta astungarri zehatzen sistema ere aldatu da, praktikan sortutako interpretazio-arazoak gainditzeko.

Horretarako, hiru aldaketa egin dira: "iruzurraren balioak" areagotutako azpimota indibidualizatzea (ZKren 250.1 artikuluko 5. idatz-zatia); "prozesuko iruzur" izenekoaren ordez prozesuko maula ezartzea (hortik kanpo geratzen dira aurreko arauketan zigortzeko modukoak ziren prozesuko maularen modalitate batzuk); eta, amaitzeko, ZKren 250.1 artikuluko 3. idatz-zatia ezabatzea, eta hori, hizlariaren ustez, maularen azpimota areagotuei dagokienez egindako aldaketarik bikainena da.

Azpimota hori kenduta, merkataritza-agiri bat faltsututa egindako maulak delituen konkurtsoa ekarriko du, agiri-faltsutzearen eta oinarritzko maula-delituaren artean. Horrek maula-delituari ezartzeko moduko zigorra txikitzea



dakar, eta era berean, horrek zehazten du delitu hori epaitzeko eskumena Zigor arloko Epaitegiak izatea.

“  
**Zigor-  
eraldaketan,  
lege-  
erreserbaren  
bidez, hogeita  
bat delituko  
katalogoa  
ezarri da**

”

Horren ostean, Julián Sánchez Melgar Auzitegi Goreneko magistratuak hartu zuen hitza, eraldaketaren berrikuntzarik handiena jorrazteko, hau da, pertsona juridikoen zigor-erantzukizuna gehitzea.

Gure zigor-zuzenbidearen ohiko kontzeptu antropomorfitikoa eta erantzukizun subsidiarioaren bidetik prozesu zibil paraleloaren barruan zein zigor-prozeduraren barruan ondare-izaerako erantzukizunak eskatzeko aukera direla bide, gure herrialdean zaila da ulertzea pertsona juridikoen zigor-erantzukizuna izan dezaketela.

Aurrekoa gorabehera, laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, enpresan egindako delituak, pertsona zehatz bati egozteko zailak direnak, jazartzeko beharrian politikokriminala sortu zen, eta tipo batzuk sortu ziren, hala nola 259. artikuluko antzinako bigarren paragrafoa edo 1995eko ZKren 318. artikulua. Horiek gaur egun ezartzen diren egozte-titulua aurreratzen zituzten.

Modu horretan, zigor-eraldaketa, lege-erreserbaren bidez, hogeita bat delituko katalogoa ezarri da, eta egozteko bi bide ezarri dira: lehenengoa, ordezkariak, legezko ordezkariak eta egiteko edo zuzenbideko administratzaileek pertsona juridikoen izenean edo kontura, eta horien probetxurako egindako delituetan; eta bigarrena, kontrolik eza, ordezkarien agintepean egonda be-



Norberto  
de la Mata eta  
Jaime Goyena

har den besteko kontrola ez izateagatik gizarte-jarduerak gauzatzean egindako delituetan, pertsona juridikoaren kontura eta horren probetxurako.

Aurrekoa gorabehera, magistratuak arauketa berri honek dituen interpretazio-zalantza batzuk adierazi zituen, besteak beste, ordezkariak egindako delituengatik pertsona juridikoari zigor-erantzukizuna egotea fikziozkoa izatea (eta horrek erantzukizun zibilaren tratamenduan duen garrantzia); pertsona juridikoen zigor-erantzukizunari kategoria orokorrrak aplikatzeko zailtasuna, hala nola, doloa edo behin-behinekoko doloa; erantzukizuna egoteko aukera jarrera aktiboen kontrolik ez egoteagatik; aplikatzeko moduko aringarriak eta astungarriak zehazteko zailtasuna, zehatz esanda "compliance" programak ezartzearen inguruan, etab. Horiek guztiak eraldaketa honen argi-ilunak dira, eta zalantzarik gabe, jurisprudentzia garatzea eskatuko dute, eraldaketak egindako arauketa behar den moduan aplikatzen dela bermatzeko.

Bigarren parte-hartze horren ostean, Martín Bilbao Lorente Barrilero y Asociados bufeteko abokatuak hartu zuen hitza. Kode berrian laneko jazarpenak eta higiezin-jazarpenak duten arauketa jorratu zuen; horren oinarria pertsona zaurgarria den arloetan babesa handitzeko egindako gizarte-eskaera da.

Bi erakundeen arauketa antzekoa dela oinarri hartuta, hizlariak tipoa ikuspegi historikotik aztertu zuen. Hizlariaren ustez ez dago mugarik, eta bere ustez, horrek ia-ia legezko-tasun-eskubidea zapaltzen du. Ildo horretatik, laneko jazarpenari dagokionez, zalantza ugari daude, bai babestutako ondasun juridikoari lotuta, bai ondasun horren aplikazio-



Jaime Goyena

Norberto de la Mata



esparruari eta jazarritako ekintzari dagokienez; izan ere, deskribatutako jarrera guztiak oso zehaztugabeak dira.

Higiezin-jazarpena dela-eta, eraldaketan zigorrak areagotu dira, goiko erdian, hau da, ekintzaren xedea etxebizitzaren erabilera legitimoa eragoztearen denean, baina berriro ere zehaztugabea da, eta horregatik, arlo zibilekoak izan daitezkeen ekintzei zigor penala ezarri ahal zaie.

Lankideak hitz egin ondoren, goizeko saioa amaitzeko, Iñigo Ortiz de Urbina Pompeu Fabra Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasleak, Oliva-Ayala Abogados bufeteko abokatuak eta Justizia ministroaren aholkulari ohiak hartu zuen hitza. Araudi iragankorra eta eraldaketatik eratorritako aldaketa prozesalak aztertu ondoren, araudiaren bakuntasuna adierazi zuen, izan ere, 95eko Kodeak ez bezala, 5/2010 Lege Organikoak hiru xedapen iragankor soilik ditu, batetik, luditzerik ez dagoelako, eta bestetik, beste eraldaketa batzuen eskemari jarraitu zaiolako, eta horietan Estatuko Fiskaltza Nagusiaren zirkularrek garrantzi handia izan dute.

“

**Higiezin-jazarpena dela-eta, eraldaketan zigorrak areagotu dira, goiko erdian, hau da, ekintzaren xedea etxebizitzaren erabilera legitimoa eragoztearen denean**

”

Aurrekoa onargarria izanda ere, araudi iragankorrek akats larriak ditu. Akatsik aipagarriena legerik mesedegarrienaren kasuan bat-bateko berrikuspena aurreikusitako gabe egotea da. Horrek eskatzen zuen epaia berrikusteko Legea indarrean jarri arte itxaron behar zela. Gai hori konpontzeko, praktikan, prozedurak moteldu ziren, kondena berriak saihesteko.

Hori alde batera utzita, 1. XIn hirugarren lege-gorputz bat sortzeko debekua ezarri da, baina legea indarrean jarri aurretik jazotako gertaeretan lege berria aplikatzea onartu da, legearen xedapenak erruztatuarentzat mesedegarriagoak badira. Kasu gutxitan gertatuko da inguruabar hori.

Ildo horretatik, hizlariaren esanetan, ezinezkoa da politika kriminalaren aldaketa mota horren inpaktua kalkulatzeko, ez baitago espetxeratuei, espetxe-gastuei, eta abarri buruzko daturik. Hala ere, jakin badakigu Espainian dagoela espetxeratu gehien, eta horrek eragin du delitu batzuetarako ezarritako zigorretan aldaketak egitea, hala nola hurrengo hauetan: jabetza intelektualaren eta industria-jabetzaren aurkako delituak, diru-laguntzen iruzurra, osasun publikoaren edo bide-segurtasunaren aurkakoak.

2. XIn epaien berrikuspenera arautu da. Horren inguruan, hizlariak eragin gutxi duela adierazi zuen, berriro ere, arauketa berria oso kasu gutxitan baita mesedegarria erruztatuarentzat. Hala ere, hizlariaren esanetan eztabaidagarria da ezarritako zigor zehatza arauketa berriarekin ere ezarriko zen kasuetan berrikuspenera bidezkoa ez izatea, eta epaien berrikuspeneraren ondoreak planteatu zituen hainbat gaitan, hala nola berrerortzea eta indultu partziala.



**Ezinezkoa da politika kriminalaren aldaketa mota horren inpaktua kalkulatzeko**



Eraldaketak eragindako gai prozesalei dagokienez, 1. AXri lotuta, hizlariak salatu egin zuen pertsona juridikoen zigor erantzukizuna arautu dela Prozedura Kriminalaren Legean eraldaketarik sartu gabe, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren tesiak garaile izanda, izan ere, azken horrek pertsona fisikoentzat ezarritako xedapen prozesalak modu analogoan aplikatu nahi zituen.

Aurrekoarekin batera, hizlariak nabarmendu zuen kreditu- eta zordunketa-txartelen zainpeko zirkulazioaren eta ematearen inguruan egindako arauketa, ZKren 399 bis artikulua arauketari dagokionez, edo ezkutuko eragilearen arauketarik ez egotea, nahiz eta azken horrek delinkuentzia antolatuen kasu gero eta gehiagotan parte hartu.

Amaitzeko, delinkuentzia antolatuari lotuta, hizlariak aitortu zuen 570 bis, ter eta quater artikuluen idazketa berriak antolaketa kriminalaren definizioa hobetzen duela, baina arazo sortzen da talde kriminala definitzen denean erakunde kriminalerako osagai bat edo bi falta zaizkion erakunde moduan. Hori dela bide, "edozer gauza" izan daiteke talde kriminala.

Arratsaldeko saioan, zigorren sisteman egindako berrikuntzak jorratu ziren, Ignacio José Subijana Zunzunegui Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko lehendakariaren eskutik, baita faltsutze-delituan eta bide segurtasunaren aurkako delituan egindako aldaketak ere, Carmen Adán del Río Bizkaiko fiskalburuaren eskutik.

## Soluciones integrales de Gestión Documental, Facturación Electrónica y Certificación Digital.

Sistemas Digitales Multifunción.

Fax.

Informática Profesional.

Gestores Documentales.

**selzur**  
SOCIO TECNOLÓGICO

Plaza Ibaiondo, 4 - P. Empresarial Ibaiondo  
48940 LEIOA Bizkaia  
Tlf.: +34 94 4425216 · Fax: +34 94 4425843  
e-mail: administracion@selzur.com

[www.selzur.com](http://www.selzur.com)





## PASA DEN HILABETEAN BAZKUNeko LIBURUTEGIAK EROSI DITUEN LIBURUEN ARTEAN, HURRENGO HAUEK INTERESGARRIAK IRUDITZEN ZAIZKIGU:

### ESQUEMAS DE DERECHO DE LOS CONTRATOS MERCANTILES



**Eliseo Sierra Noguero**  
Tirant lo Blanch

- Merkataritzako egintzak eta kontratuak ez dira Merkataritza Kodean esanbidez araututa daudenak bakarrik (sozietatea, gordailua, salerosketa, garraioa, etab.), antzeko izaera duten beste edozein baino (Merkataritza Kodearen 2. art.). Formula hori dela bide, merkataritza-egintza eta -kontratuak sortu berriak arautzen dituzten legeak merkataritza arloko moduan kalifikatu dira. Merkataritza-kontratuen zuzenbideko eskema horiek aztertzen dituzte Merkataritza Kodean eta araurik modernoetan araututako merkataritza-kontratu nagusiak. Merkataritza-kontratu atipiko batzuk edo arauketa osorik ez dutenak ere aztertzen dira, gaur egungo trafiko juridikoan sarritan agertzen baitira, batez ere Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak eta doktrina merkantilistak behin eta berriro aitortu badute.


### LA FISCALIDAD INMOBILIARIA EN EL AMBITO LOCAL: CUESTIONES PROBLEMÁTICAS



**M<sup>a</sup> Reyes Vargas Jiménez**  
Editorial Comares

- Sarreran toki ogasunen printzipioei eta finantzaketa-iturriei buruzko gogoeta labor eta egoki batzuen ostean, higiezinaren sektorearekin lotutako zergak aztertzen dira. Gaur egun Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren, Eraikinen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren eta Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren arauketa planteatzen dituen gai juridiko gatazkatsuek zorrotasunez jorratu dira. Análisi zorrotz horren ostean, zuzenbide konparatuko kapitulu iradokigarria dator, eta horretan Italian tokiko ogasunak nola finantzatzen diren azaldu da. Lana amaitzeko, ondorioen kapitulu luzea dator, eta bertan, egileak azterlanaren ekarpen nagusiak laburtu eta tributario arloan eta toki ogasunen beste finantzaketa-iturri batzuei lotuta planteatu diren eraldaketa-proposamenei buruzko iritzia ematen du.

### COMPETENCIA JUDICIAL Y LEY APLICABLE EN EL ÁMBITO DE LOS CONTRATOS DE TRABAJO INTERNACIONALES



**M<sup>a</sup> José Serrano García**  
Reus Editorial

- Gaur egun, enpresen nazioarteko jarduerak eta langileen nazioarteko joan-etorriek gora egin dute nabarmen, eta lan egiteko modu berriak sortu dira, hala nola ziberlana eta telelana. Horrekin batera, nazioarteko lan-kontratuek eta, modu logikoan, horiekin lotutako auziek gora egin dute.

Liburuko lehenengo eta bigarren zatian organo judicial eskudunak eta deskribatutako egoeraren antzekoetan aplikatzeko moduko legea zehaztean eragina duten gatazkarauek aztertzen dira. Hirugarren zatian, lanean alegazioaren araubide juridikoa eta atzerriko zuzenbidearen frogak aztertzen dira. Araubide juridiko hori hibrido moduan kalifikatu ondoren, prozesuan parte hartzen duten atzerriko arauen sarrera, arau horien frogak, alegaziorik eta/edo frogarik ez egotearen ondorioak eta, amaitzeko, gai horietan erabili izan den jurisprudentzia jorratzen dira.



## BAZKUNEKO LIBURUTEGIAK EROSITAKO BESTE LIBURU BATZUK

### ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEA

**Guía de gestión municipal 2011 - 2014: responsabilidad y puntos críticos del alcalde y el concejal**, Rosat Aced, Ignacio (koor.), Almonacid Lamelas, Victor (eta beste batzuk) El Derecho (Madril)

**Arbitraje y derecho administrativo**, García Pérez, Marta Aranzadi (Zizur Txikia)

**La admisión instrumental en el proceso**, Boto Álvarez, Alejandra Reus (Madril)

### ZUZENBIDE ZIBILA

**Clases de testamentos**, García Presas, Inmaculada Dykinson (Madril)

**La defensa de los consumidores y usuarios: comentario sistemático del texto refundido aprobado por el real decreto legislativo 1/2007 (adaptado a las reformas introducidas por las leyes 25/2009 y 29/2009)**, Rebollo Puig, Manuel, Izquierdo Carrasco, Manuel Iustel (Madril)

**El derecho a acrecer entre coherederos**, Zumaquero Gil, Laura Dykinson (Madril)

**La guarda y custodia compartida: una medida familiar igualitaria**, Romero Coloma, Aurelia M<sup>a</sup> Reus (Madril)

**Crisis matrimoniales y pensión de viudedad: especial consideración al presupuesto de la pensión compensatoria**, Ureña Martínez, Magdalena Aranzadi (Zizur Txikia)

**Derecho sanitario y bioética: cuestiones actuales**, Gascón Abellan, Marina, González Carrasco, M<sup>a</sup> del Carmen, Cantero Martínez, Josefa Tirant lo Blanch (Valentzia)

**Código civil comentado**, Cañizares Laso, Ana, (eta beste batzuk) Civitas (Zizur Txikia)

### TRIBUTU ZUZENBIDEA

**La ejecución de sentencias en el proceso contencioso - administrativo tributario**, Calderón González, Jesús M<sup>a</sup> Aranzadi (Zizur Txikia)

**La fiscalidad inmobiliaria en el ámbito local: cuestiones problemáticas**, Vargas Jiménez, M<sup>a</sup> Reyes Comares (Granada)

**Memento inspección de hacienda 2011 - 2012**, Fortuny Zaforteza, Mariano Francis Lefebvre (Madril)

### NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA

**Competencia judicial y ley aplicable en el ámbito de los contratos de trabajo internacionales: la conversión del convenio de Bruselas y del convenio de Roma en reglamentos comunitarios**, Serrano García, M<sup>a</sup> José Reus (Madril)

### LAN ZUZENBIDEA

**Memento práctico despido: otras formas de extinción del contrato de trabajo (2011 - 2012)**, Agusti Maragall, Joan, (eta beste batzuk) Francis Lefebvre (Madril)

**La protección de la incapacidad temporal en el régimen general de la seguridad social**, Fernández Prats, Celia Tirant lo Blanch (Valentzia)

**Los deportistas profesionales: régimen jurídico laboral y de seguridad social**, Roqueta Buj, Remedios Tirant lo Blanch (Valentzia)

### MERKATARITZA ZUZENBIDEA

**Memento práctico sociedades limitadas 2011 - 2012**, Moral González, Isidro del, Guardo Galdón, M<sup>a</sup> Luisa Francis Lefebvre (Madril)

**Apertura de grandes superficies comerciales y libertades comunitarias**, Estrada Alonso, Eduardo, (eta beste batzuk) Reus (Madril)

**Memento práctico plan general contable 2009**, Ortega Carballo, Enrique, (eta beste batzuk) Francis Lefebvre (Madril)

**Esquemas de derecho de los contratos mercantiles**, Sierra Noguero, Eliseo Tirant lo Blanch (Valentzia)

### ZIGOR ZUZENBIDEA

**El terrorismo como crimen internacional: definición, naturaleza y consecuencias jurídicas internacionales para las personas**, Vacas Fernández, Félix Tirant lo Blanch (Valentzia)

**Los nuevos delitos sobre la ordenación del territorio y el urbanismo: adaptado a la lo 5/2010 de modificación del código penal**, Acale Sánchez, María Bosch (Bartzelona)

**Memento de autor delito fiscal y blanqueo de capitales**, Domínguez Puntas, Antonio Francis Lefebvre (Madril)

**Manual práctico sobre ejecución penal y derecho penitenciario: doctrina, jurisprudencia y formularios**, Ferrer Gutiérrez, Antonio Tirant lo Blanch (Valentzia)

**Delitos de atentado contra la autoridad, sus agentes y los funcionarios públicos y de resistencia y desobediencia**, Lorente Velasco, Susana M<sup>a</sup> Dykinson (Madril)

**El delito de "fraudes deportivos": aspectos criminológicos, político - criminales y dogmáticos del artículo 286 bis.4 del código penal**, Benítez Ortuzar, Ignacio Francisco Dykinson (Madril)

**El acoso: tratamiento penal y procesal**, Martínez González, M<sup>a</sup> Isabel (Dir.), (eta beste batzuk) Tirant lo Blanch (Valentzia)

### ZUZENBIDE PROZESALA

**La prueba en el proceso civil**, Montero Aroca, Juan Civitas (Zizur Txikia)

**Procedimientos penitenciarios**, Armenta González - Palenzuela, Francisco Javier Comares (Granada)

### FILOSOFIA ETA DEONTOLOGIA

**Deontología del abogado: el profesional y su confiabilidad**, Garrido Suarez, Hilda M<sup>a</sup> Edisofer (Madril)



## DERECHO FISCAL

> **Ley 1/2000, de 29 de junio**, de modificación de la Ley de Cooperativas de Euskadi. (BOPV 11-12-11).

> **Ley 5/2011, de 22 de diciembre**, de modificación de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (BOPV 28-12-11).

> **Decreto Foral Normativo 4/2011, de 13 de diciembre**, por el que se modifica la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido. (BOB 21-12-11).

> **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 195/2011**, de 13 de diciembre, por el que se modifica el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia. (BOB 21-12-11).

> **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 210/2011**, de 20 de diciembre, por el que se modifican los porcentajes de retención aplicables a los rendimientos del trabajo. (BOB 23-12-11).

> **Norma Foral 4/2011, de 28 de diciembre**, por la que se establece el Impuesto sobre el Patrimonio para 2011 y 2012. (BOB 30-12-11).  
*Con carácter transitorio y coyuntural, con el fin de minimizar el impacto de la crisis económica, para los años 2011 y 2012, esta Norma Foral restablece el Impuesto sobre el Patrimonio, manteniendo la estructura forma y material vigente en el momento en el que se derogó, pero limitando su aplicación a un reducido número de contribuyentes, aquellos con gran capacidad económica. Por ello, se eleva hasta 800.000 euros la reducción de la base imponible del impuesto en concepto de mínimo exento y se eleva la exención por vivienda habitual hasta 400.000 euros. No obstante, aquellos contribuyentes que tengan bienes o derechos por valor superior a dos millones de euros deberán autoliquidar el impuesto, aunque no resulte a ingresar.*

> **Norma Foral 5/2011, de 28 de diciembre**, de reforma de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia. (BOB 30-12-11).

## DERECHO LABORAL Y DE SEGURIDAD SOCIAL

> **Orden TIN/3356/2011, de 30 de noviembre**, por la que se modifica la Orden TAS/2865/2003, de 13 de octubre, por la que se regula el convenio especial en el sistema de la Seguridad Social. (BOE 6-12-11).

> **Real Decreto 1783/2011, de 16 de diciembre**, por el que se modifica el Real Decreto 196/2010, de 26 de febrero, por el que se establecen medidas para facilitar la reinserción laboral así como el establecimiento de ayudas especiales a los trabajadores afectados por los expedientes de regulación de empleo 76/2000, de 8 de marzo de 2001 y 25/2001, de 31 de julio de 2001. (BOE 17-12-11).

> **Ley 4/2011, de 24 de noviembre**, de modificación de la Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social. (BOPV 12-12-11).

*Esta Ley se dicta tras la asunción desde el Gobierno Vasco y, en particular, a través de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, de las competencias relacionadas con la tramitación y resolución de las prestaciones económicas de derecho, es decir, de la renta de garantía de ingresos y de la prestación complementaria de vivienda, así como de la elaboración, propuesta, negociación, suscripción y seguimiento de los convenios de inclusión.*

## OTROS

> **Real Decreto 1611/2011, de 14 de noviembre**, por el que se modifica el Real Decreto 95/2009, de 6 de febrero, por el que se regula el Sistema de registros administrativos de apoyo a la Administración de Justicia. (BOE 2-12-11).

> **Ley 7/2002, de 12 de diciembre**, de las voluntades anticipadas en el ámbito de la sanidad. (BOE 3-12-11).

> **Orden INT/3321/2011, de 21 de noviembre**, sobre expedición de título de viaje a extranjeros. (BOE 5-12-11).

> **Orden EHA/3411/2011, de 5 de diciembre**, por la que se establece el nuevo sistema de Índices de Precios de Consumo, base 2011. (BOE 16-12-11).

> **Orden EHA/3552/2011, de 19 de diciembre**, por la que se regulan los términos en los que los obligados tributarios pueden ejercitar la posibilidad de señalar días en los que la Agencia Estatal de Administración Tributaria no podrá poner notificaciones a su disposición en la dirección electrónica habilitada y por la que se modifica la Orden HAC/661/2003, de 24 de marzo, por la que se aprueba el modelo de autoliquidación de la tasa por el ejercicio de la potestad jurisdiccional en los órdenes civil y contencioso-administrativo y se determinan el lugar, la forma y los plazos para su presentación. (BOE 29-12-11).

> **Decreto 239/2011, de 22 de noviembre**, de modificación del Decreto regulador de los puntos de encuentro familiar por derivación judicial en la Comunidad Autónoma del País Vasco. (BOPV 1-12-11).

> **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 179/2011 de 29 de noviembre**, por el que se regula la prestación para cuidados en el entorno familiar. (BOB 9-12-11).

*Con este Decreto se actualizan y adaptan los contenidos de la normativa existente en el Decreto 98/2007 a las situaciones acontecidas durante el tiempo transcurrido desde su publicación. Esta prestación está destinada a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la atención prestada por la persona cuidadora no profesional, pudiendo ser reconocida en cualquier grado y nivel de dependencia, conforme al calendario establecido en la Disposición Final Primera de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, cuando se reúnan las condiciones de acceso establecidas.*

> **Norma Foral 3/2011, de 22 de diciembre**, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2012. (BOB 26-12-11).

> **Decreto Foral del Diputado General 278/2011, de 21 de diciembre**, por el que se declaran los días inhábiles para cuantos actos, trámites y recursos deban llevarse a cabo o formularse en el ámbito de la Diputación Foral de Bizkaia durante el año 2012. (BOB 27-12-2011).



## TRIBUTU ZUZENBIDEA

> **1/2000 Legea, ekainaren 29koa**, Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzen duena. (EHAA 11-12-11).

> **5/2011 Legea, abenduaren 22koa**, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoetako buruzko Legea aldatzeko dena. (EHAA 11-12-28).

> **4/2011, Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 13koa**, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen duena. (BAO 11-12-21).

> **Bizkaiko Foru Aldundiaren 195/2011 Foru Dekretua**, abenduaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalen araudia aldatzen duena. (BAO 11-12-21).

> **Bizkaiko Foru Aldundiaren 210/2011 Foru Dekretua**, abenduaren 20koa; honen bidez, lanaren etekinei aplikatu beharreko atxikipenen portzentajeak aldatzen dira. (BAO 11-12-23).

> **4/2011 Foru Araua, abenduaren 28koa**, 2011rako eta 2012rako ondarearen Gaineko Zerga ezartzen duena. (BAO 11-12-30).

*Behin-behinekotasunez, krisialdi ekonomikoaren eraginari aurre egiteko, 2011. eta 2012. urteetarako foru arau honek berriro jarriko du indarrean Ondarearen gaineko Zerga baina zergapeko gutxi batzuei baino ez zaie aplikatuko; hain zuzen ere, ahalmen ekonomikoa handia dutene. Zerga honen aplikazio-eremu berriak mantendu egingo du zerga indargabetu zenean indarrean zeuden egitura formal eta materiala. Horrenbestez, 800.000 eurora arte altxatuko da zergapeko guztien zerga-oinarriaren gutxipena, gutxieneko salbuetsi gisa, eta ohiko etxebizitzagatik salbuespena, berriz, 400.000 eurokoa izango da. Dena dela, nahiz eta zerga ordaindu beharrik izan ez, subjektu pasiboek beti aurkeztu beharko dute autolikidazioa, baldin eta beren ondasun-eskubideen balioa, zerga honetako arauen arabera zehaztuta, 2.000.000 euro baino handiagoa bada.*

> **5/2011 Foru Araua, abenduaren 28koa**, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua aldatzen duena. (BAO 11-12-30).

## LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZAKOA

> **TIN/3356/2011 Agindua, azaroaren 30ekoa**, Gizarte Segurantzaren sistemako hitzarmen berezia arautzeko urriaren 13ko TAS/2865/2003 Agindua aldatzen duena. (EAO 11-12-6).

> **1783/2011 Errege Dekretua, abenduaren 16koa**, otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretua aldatzen duena; azken errege-dekretu horren bidez, birlanderatzen laguntzeko neurriak ezarri ziren, bai eta 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 enplegu-erregulazioko espedienteak eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteak eragiten dien langileei laguntzeko laguntza bereziak ere. (EAO 11-12-17).

> **4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa**, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena. (EHAA 11-12-12).

*Lege hau ematen da Eusko Jaurilaritzak, bereziki Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, eskumenak eskuratu dituen zuzenbidezko prestazio ekonomikoak, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria, tramitatzeko eta ebazteko; eskumenak, baita, gizarteratze-hitzarmenak egiteko, proposatzeko, negoziatzeko, harpidetzeko eta horien jarraipena egiteko.*

## BESTELAKOAK

> **1611/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa**, Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema arautzen duen otsailaren 6ko 95/2009 Errege Dekretua aldatzen duena. (EAO 11-12-2).

> **7/2002 Legea, abenduaren 12koa**, osasun arloko aurretiazko borondateena. (EAO 11-12-3).

> **INT/3321/2011 Agindua, azaroaren 21ekoa**, atzeritarrei bidaia-titulua egiteari buruzkoa. (EAO 11-12-5).

> **EHA/3411/2011 Agindua, abenduaren 5ekoa**, kontsumo-prezioen indizeen sistema berria ezartzen duena, 2011ko oinarria. (EAO 11-12-16).

> **EHA/3552/2011 Agindua, abenduaren 19koa**, zergaduna Zerga Administrazioeko Estatuko Agentziak helbide elektronikoan jakinarazpenak zein egunetan egin ezin diezazkiokeen adierazteko eskubideaz baliatzeko baldintzak arautzeko eta martxoaren 24ko HAC/661/2003 Agindua aldatzeko (ordena zibileko eta administrazio auzien ordenako jurisdikzio-ahalaz baliatzeagatik tasaren autolikidaziorako eredu onartu eta aurkezteko lekua, modua eta epeak ezartzen ditu). (EAO 11-12-29).

> **239/2011 Dekretua, azaroaren 22koa**, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena. (EHAA 11-12-1).

> **Bizkaiko Foru Aldundiaren 179/2011 Foru Dekretua**, azaroaren 29ekoa, familia barruko zaintzetarako prestazioa arautzen duena. (BAO 11-12-9).

*Familia barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa 2007ko ekainaren 19ko 98/2007 Foru Dekretuaren bidez arautu zen, baina dekretu horren edukiak eguneratu eta egokitu egin behar dira oraingo Foru Dekretu honen bitartez, onartu zenetik iragandako denboran sortutako egoerak kontuan hartuta. Familia barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren helburua da zaintzaile ez profesionalak emaniko laguntzatik eratorritako gastuak ordaintzen laguntzea. Laguntza hori edozein mendetasun gradu eta mailatan onartu ahal da, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen azken xedapenetatik lehenak ezarritako egutegiaren arabera, laguntza jaso ahal izateko ezarri diren baldintzak betez gero.*

> **3/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa**, Bizkaiko Lurralde 28216 Historikokoaren 2012. urteko aurrekontu orokorreko buruzkoa. (BAO 11-12-26).

> **Ahaldun Nagusiaren 278 /2011 FORU DEKRETUA, abenduaren 21ekoa**. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eremuan 2012an zehar egin edo aurkeztu behar diren egin-tza, tramite edo errekurtsio guztietarako egun baliogabeak zehazten dira. (BAO 11-12-27).



## EL NIÑO PERDIDO



Egilea:  
**Thomas Wolfe**

Itzulpena:  
Juan Sebastián Cárdenas

Periférica, 2011.  
93 or.; 15€

Zenbat gustatzen zaigu Amerikaren hegoaldeko literatura! Ez dakit zer daukan, baina berezia da. Agian landa-ingurukoaren aurrean duen sentikortasuna izango da, edo aurrerapenari aurre egiten zion mundu bukoliko hori deskribatzeko modua. Edo agian eleberrietan agertzen diren pertsonaien ukitu grotesko eta babesgabea. Ohartzen bagara, azken urteetan atal honetan hegoaldeko egile asko gomendatu ditugu: Capote, Welty, O'Connor, McCullers, Agee, Anderson...

Thomas Wolfe oraindik ez genuen ezagutzen. Ez, ez dauka zerikusirik traje zuridun Tom Wolferekin, "La hoguera de las vanidades" eta "kazetaritza berria". Gure Wolfe (Asheville, 1900- Baltimore, 1938) 38 urterekin hil zen idazlea da, eta Espainian ia-ia ez du lanik argitaratuta. Eskerrak eman behar dizkiogu Periférica argitaletxeari, ahanzturatik berreskuratzea apustu arriskatua izan da eta. Nahiz eta idazleak kalitate handia izan. Kerouacek idazlearen maila narratiboa azpimarratu zuen, Faulkner-ek bere belaunaldiko "onena" zelan esan zuen, eta Sinclair Lewisek, Nobel saria jasotzean, bere erreferentia zela esan zuen. "El niño perdido" liburu hunkigarria iruditatu zaigu. Eleberri laburra da, autobiografikoa, eta horretan Wolfek ahazturatik berreskuratzen du hamabi urteko anaiaren heriotza. Horretarako, lau kapituluko kontakizuna asmatu du. Kapitulu bakoitzean, gertatutakoa ikuspegi desberdinetik aurkezten da. Ez dago hari defini-


turik, ez da kronologia errespetatzen, ezta ahots narratiboa ere. Hori gutxienezkoa da. Izan ere, azken orria irakurtzean guztiak bat egiten du, istorio hunkigarria eratuz.

Lehenengo kapituluan Grover umea aurkezten da hil aurretik, Estatu Batuen hegoaldeko herri txiki bateko plaza batetik paseatzen. Wolfek giroa, dendak edo haurrak gozotegian txartelekin ordaintzeko duen beldurra deskribatzeko modua zoragarria da. Oroitzapen-ahalmenak liluratu egiten du. Bigarren kapituluan amak hitz egiten du. Ezezagun batekin seme hilari buruz hitz egiten du. Emakumea lur jota dago eta elkarrizketa desordenatua da, ohar hutsak, hasperenak, mina. Treneko bidaia bat hautematen dugu, etorkizun itzaropentsua, guztiak hankaz gora jarrita. Groverren arrebak hirugarren ikuspegi ematen du. Nebaren argazkia aurrean du eta oroitzapenak borborka ateratzen dira. Harekin egotea oroitzen du, zer arratsaldetan gaixotu zen, nola iritsi zen etxera, bekokia sutan, eta amari "tifus" hitza esaten. Laugarren eta azken kapituluan, anaia-narratzailearen txanda da. Wolfe leku ezezagun batetik mugitzen da. Berak lau urte zituela anaia hil zen etxea bilatzen du. Etxean familia ezezagun bat bizi da orain. Atarian emakume bat aurkitzen du eta sartzeko baimena eskatzen dio. Begiak logelarrantz doaz. Han gertatu zen dena. Eta, Wolfe, lanbroen artean, oroitzen ahalegintzen da...

*"No hay deber que descuidemos tanto como el deber de ser felices".*

Robert Luis Stevenson

## CRÍMENES



Egilea:  
**Ferdinand Von Schirach**

Itzulpena:  
Juan de Solá

Salamandra, 2011.  
187 or.; 15,50€

Kideren batek literatura-atal honetara jotzen badu demandak, zitazioak eta epaitegiak ahazteko gogoarekin, barkamena eskatu behar diot. Gomendatzen dugun liburua auziei buruzkoa da. Are gehiago, legelari batek idatzi du. Zigor arloko legelariak, datu gehiago emanda. "Crímenes" izenburupean, legelari horren hamaika kasurik ospetsuenak kontatzen dira. Egilea Ferdinand Von Schirach (Berlin, 1946) deitzen da eta, egia esan, letren munduan egindako ibilbidea nahiko ondo ateratzen zaio. Milioi bat ale baino gehiago saldu ditu 30 herrialdetan eta eleberria zinemarako egokituko dutela esan dute.

"Crímenes" hasiera ona da. Entretienitu eta konbentzitu egiten du. Baina ñabardura batzuk egin behar dira. Lana ez da biribila. Hasierako sorpresa alde batera utzita -hasiera harrizkoa da-, hamaika kontakizunek ez dute lotura handirik, eta modu artifizialean lotuta daude narratzaile baten bidez. Literaturaren alderditik ez dago lotura gehiagorik. Era berean, ez gaitu konbentzitu horrenbeste ohar anker emateak. Hasieran harritu egiten dute, baina azkenean errepikatu egiten dira, Von Schirachek soiltasun narratiboz mozarrotu arren.

Orain arte trabak aipatu ditugu, baina egia esan, eleberriak bertute asko ditu. Ziur gaude lankide askok eleberri hau gustuko izango dutela, gure lanbidean izandako esperientzia oinarri hartzen baitu. Baina "Crímenes" lanak askotariko irakurleen artean arrakasta izan du. Lehenengo eta behin, oso ondo idatzita dagoelako. Hizkuntza erraza, argia eta zuzena da. Ez du dibagaziorik egiten, ez ditu itzulginguruak egiten. Azkar egiten du aurrera, eta

hasiera-hasieratik istorioan murgiltzea lortzen du. Bete-betean asmatu duen beste gauza bat sinesgarritasuna da. Von Schirach abokatu aleman da, ilea urdinduta du, eta hori nabaritu egiten da. Berak kontatzen dituen istorioak berak defendatu dituen espedienteetatik aterata daude. Adierazpeneko estiloa erabiltzen du eta berak esaten duena sinestea lortzen du: "Hori gertatu zen eta horrela izan zen". Hirugarren arrazoia kontakizunen interesa da. Von Schirachek defendatutako kasu gehienak krimenak dira. Ankerkeriak alde batera utzita, interesgarriak dira. Irakurleak kasua nola ebatzi zen jakin nahi du, zer gertatu zen amaieran, defentsaren estrategia, epaimahaiaren erreakzioa, epailearen harridura sorpresazko lekukoaren aurrean...

Dena den, "Crímenes" lanak bete-betean asmatzen duena da paperean azaltzen jakin duela prozedura judicial bakoitzaren ostean ezkatuzten den giza drama. Mota guztietakoak daude: eromena, jeloskortasuna, mendekua, haserrea, desbideratzeak, zorte txarra... Gai penal bat, ez dezagun ahaztu, arazo baten gehiengo adierazpena da. Von Schirachek modu aseptikoan kontatzen du. Ia-ia ez du irizirik ematen. Gaia eta defentsa kontatzen ditu, baina ez dago irizirik moralik. Hori irakurleari dagokio. Aitor dezagun, penalistak gizaki bitxiak dira. Legelarioen bulegoetara muturreko egoerak iristen dira. Drama horiek aztertzean, horien arrazoiaren inguruan goetoa egitean, arrazoiak ulertzen ahalegintzean... ikaskuntza berezia lortzen dute. Bizitzari buruzko eskola, jakinduria, azken batean. Legelariok kontatzen digutenaren aurrean adi egotea komeni da.



## DRIVE Nicolas Winding

Duela urte batzuk zoratu egiten nintzen karteldegian a priori interesgarrienak ziren lauzpabost filmen artean zuei bat eskaintzeko; zoritxarrez, hautaketa-lan hori gero eta errazagoa da niretzat, eta hilabete batzuetan zaila izaten da nahiko ondo dagoen film bakar bat aurkitzea. Adibide moduan, karteldegian pertsona ospetsuren batek egindako filmen bat estreinatzen denean (esaterako, Polanskiren azkena), enpresa banatzaileak txikiea modu mugagabean luzatzen ahalegintzen dira. Edozein film gure hirian gehienez bi aste egoten da, baina kasu hauetan filmak lau edo bost aste egoten dira karteldegietan.



Jakingura daukat *Drive* lanaren ibilbidea zein den jakiteko. Dagoeneko zenbait sari irabazi ditu jaialdietan (zuzendaririk onena Cannesen, izendapenak Urrezko Globoetan...) eta badirudi jende

asko hurbiltzen ari dela aretoetara. Filmaren definizioa nahiko atipikoa da, baina zinemazaleentzat egokia da (klasikoetan oinarritzen da, hala nola *El silencio de un hombre* eta *Driver*, Walter Hillena), ukitu "moderno" duten ikusleentzat (ez dago oso urrun *Collateral* lanetik, Lynch-en ukituak ditu edonon...) eta baliteke zinemara Gabonetan behin hurbiltzen den ikuslearentzat gustukoa izatea, nahiz eta erritmoa oso geldoa dela iruditu.

Zalantzarik gabe, harrapatu egiten du eta zuzendariaren meritua da (Hosein Amini gidolariak moldatzen duen James Sallisen eleberria irakurri beharko litzateke zenbat erru duen jakiteko) ziurrenik justua dena kontestualizatzen duela. Protagonistari buruz gutxi dakigu (oso gutxi hitz egiten du eta zeluloidean aurrekari gutxi dituen neurritasuna erakusten du),

baina ez du asko ardura. Eta ez du asko ardura istorio hau edo antzekoak aurretik ere mila aldiz kontaktuta egotea. Generoak ematen duena ematen du, baina atmosfera –horren zaila den hori- eta egoerak sortzeko modua oso erakargarriak dira. Protagonistaren jarrerak samuraien ekialdeko zinemarekin bat egiten du thriller konbentzionalarekin baino. Protagonistak tailer mekaniko batean lan egiten du (hori da bere ogibidea), baina ordainsariak osatzeko filmetan espezialistaren lanak eta, batez ere, lapurrentzako gidari lanak egiten ditu. Gidariak euren kodea errespetatu behar dute, oso definituta dagoena (inoiz ez zaio bost minutu baino gehiago itxaron behar lana egiten duenari, inoiz ez dira enkarguak errepikatu behar, ez dira armak eraman behar, bezeroak ezikusia egin behar dio kalean aurkituz gero...). Hala ere, egun batean, gustuko duen auzokoaren (Carey Mulliganek interpretatuko papera, atal honetan *An education* lana dela-eta aipatu genuena) senarrari laguntzeko, gidariaren lanaren muga gainditu eta lurralde arriskutsuetan murgilduko da. Hala ere, aurpegia ez zaio ezer aldatuko. Bikaina da Ryan Gosling aktore protagonistaren lana eta telebistako bigarren mailako aktoreen parte-hartzeak neurritsuak dira (Cristina Hendricks, *Mad Men* lanarengatik ezagunagoa dena).

Film goibela, zikina, gauekoa eguneko baina, *tempo* bikainekoa, erromantizismoa eta indarkeria neurri berean duena (laburra baina esplizitua). Txandakatu egiten ditu une sentimentalak (Goslingek auzokoaren semearekin duen harremana) eta basakeria uneak eta bizitzarekiko mespretxua.

Eztabaidagarriagoa da laurogeiko hamarkadako estetika (kredituen izenburuen grafia, musika (uff), protagonistaren jaka...). Ez du merzei aldi batzuei omenaldia egitea. Dena den, zapore on-ona uzten du.

## LA PEQUEÑA (PRETTY BABY, 1978) Louis Malle

Ez dugu Louis Malle aurkituko, baina beldur naiz beste zuzendari batzuekin gertatzen dena gertatzen dela berarekin. Askok entzun dugu berari buruz, baina zinemazaleek ere film gutxi ikusi dituzte.



Berak egindako filmografia "frantsesa" *nouvelle vague* izenekoaren garaikidea izan arren (ezin da esan mugimendu horretako zuzendari denik), inoiz ez zuen esan mugimendu berriko kidea zenik eta mugimendu horren erdiguneak ere inoiz ez zuen esan bereetako bat zenik.

Frantziako lurretan grabatutako lanak interesgarriak dira, film oso desberdinak egin zituen eta (zinema beltza, musikala), mota guztietako polemikak eragin zituen bere filmetan intzestuen gaia jorrotuta (Un soplo al corazón), kolaborazionismoa ulertzen ahaleginduta (Lacombe Lucien)..

Ozeanoaz bestaldera jotzean beste horrenbeste gertatu zen. La pequeña lanarekin estreinatu zen eta film on batzuk etorri ziren gero, besteak beste Atlantic City (Burt Lancaster-ekin), eta *Adiós muchachos*.

Ez ditut erabili nahi beste artelan batzuk aipatzean erabilitako argudioak, baina *La pequeña* filmak inoiz ez


luke argia ikusiko 2011n grabatu izan balitz edo gozatu-ta filmatuko balitz.

*La pequeña* edo neska prostituta (Brooke Shields) baten istorioa, hogeiko hamarkadako New Orleansko burdel batean hazitakoa, ama ere (Susan Sarandon) lanbide berean duena. Inguruan, profesional kutunak, eta zergatik, ez, bezero kutunak.

*La pequeña* urdailaren ahoan emandako ukabilkaden segida da, nahiz eta filmak pasarte dramatikoak, erromantikoak edo komikoak izan: neskatoaren birjintasunaren aldeko eskaintzak hunkigarriak dira, eta beste batzuk poetikoak –ia-ia nerabea denean lehenengo papina oparitutako diote. Interesgarria da Keith Carradine handiak interpretatutako pertsonaiekin ezartzen den harreman ilun eta konplexua: lehenengo burdeleko argazkilaria izango da, eta gero adingabearen senarra...

Ziurrenik ez duzue birritan ikusiko, baten ikusita nahiko gogorra da eta, baina ikusi ez duenari filma ikusteko gomendatzen diot, eta berak epai dezala. Zaila izango da hiruzpalau eszena ahaztea, ziurrenik betiko grabatuta geratuko zaizkizue eta.

Gogoan izan behar da lehen zinemaren munduan guztiak beste modu batean funtzionatzen zuela eta zinema desberdinaren aldeko apustua egiten zela, batez ere zinema bikainaren aldekoa.



In dubio pro rock

## DUKE ELLINGTON – Blues in Orbit



Lp (Music On Vinyl)  
11 abesti

Binilo formatua itzuli da, edo hori esaten dute. Formatu hori alde batera erabat utzi ez dugunok fenomeno hori aurkako sentimenduekin bizi dugu. Batetik, pozik gaude, zalantzarik gabe, hedatzen ari den katalogo batera sartzeko aukerak eskaintzen dituelako. Baina, bestetik, nahiko harrituta gaude, ez baita zaila ikustea atzean dagoela –preziosa arrazoirik gabe handituta- iraganean hain interes makurrak eman dizkion gogo bizi hori bertan behera uzteko gai ez den industria diskografikoa. Biniloa kopia eta jaitsi ezin den formatu bakarra, hori ondo, baina ezin da ahaztu gehiengo errespetua eskatzen duela eta merezi duela kontsekuentea izan nahi bada.

Zaleek aliatuak behar dituzte, haiek diren bezala hartzen dutenak, hots, musikarako ibilgailu aparta. Kalitatezko diskoak egiten dituzten etxeak, jatorrizkoen soinua errespetatzen duten biniloak, erreferentzia guztiak kontuan hartzen dituztenak eta kontuan hartzen dutenak sofistik altzatzea eta disko bat ipintzea ekitaldi zeremoniala eta eukaristikoa dela. Plan horretan etxe batzuek urte asko daramatzate, hala nola Nortonek eta Sundazedek, musikazaleari nahi duena eskainiz. Eta orain Music On Vinyl iritsi da, hazten ari den eskaintza batekin. Gaur egun hirurehun erreferentzia inguru ditu, batez ere titulu klasikoak.

Lagin on bat Duqueren hau da. Jazzaren aristokrata da –irudizko adieran, noski-. Jakina da berrogeita hamarrek hamarkadaren hasieran big-banden urrezko aldia amaitu ondoren, Ellingtonek bere big-banda bizirik mantendu zuela, saioekin dirua lortzea oso zaila zen arren. Haiek entzunda hauteman zezakeen bere musika. “Blues in Orbit” jazzik aipagarriena beste bide batzuetatik mugitzen zen aldiko adibide aipagarria da. Berrogeita hamarrek hamarkadaren amaieran grabatuta dago, batez ere 59an, taldearen adibide murriztu batekin, baina pare bat tema 15 musikariko orkestra osoarekin grabatuta zeuden. Oso harrigarria da album hori bere diskografiako lanik aipagarrien artean ez egotea. Tonu orokorra, atmosferikoa, bluesa forman eta oinarrian, eta tema bakoitzaren moldaketa, entzuten duen edonoren gustukoa –seguru-, jazean aditua izan zein ez. Ohiturarik ez dutenak askotan atzerantz bultzatzen dituen eskakizun maila hori izan beharrean, disko hau oso aproposa da etorkizunean zaletasun osasuntsu aizan daitekeena abiarazteko. Bilduma oso ederra da, formatu berri berrikusten ditu Ellingtonen erreperitorio klasikoko lan klasiko batzuk, eta pianoaz gain –ezin zen bestela izan aipagarria da bi bakarlarik apartearen lana, Ray Nance eta bere tronpeta, eta Johnny Hodges liluragarriaren saxo altua.

## ROLLING STONES – Some Girls



2Cd (A&m Universal)  
22 temas

Zenbait urtez stone inperioaren jokabide zikoitza kritikatzeko ohikoa eta justifikatua zen, ez baitzegoen artxiboei hautsa kentzearen alde. Baina azkenaldian hori erabat aldatu da. Arlo diskografikoan zein literaturan eta ikus-entzunezkoetan, zenbait urtez rock and rollaren familia horrek sototik ateratako materiala dastatzen ari gara. Guztia *Exile on Main Street* berreskuratuta hasi zen, gero grabazio paregabe hartako xehetasunen dokumentala etorri zen, *Ladies & Gentleman* dvd-an grabatutako filma, hain zuzen ere, *Exile* lana aurkezteko kontzertuen ingurukoa, eta noski, “Vida”, Keith Richardsen oroitzapenak. Hori guztia urte batean.

Orain *Some Girls* berreskuratzeko txanda da, eta hori bonbazia handian egin da. Horren inguruan polemika ego narren eta batzuek *Tattoo You* Stones taldearen azken disko handia dela esan arren, disko horretako materialak aspaldikoak direnez, niretzat *Some Girls* lanak merezi du aipamen hori. Une hartan bandaren panorama ez zen ona. Kitz jokoz kanpo egoen, Toronton atxilotu zuten heroina kopuru handi batekin, punkak une hartako rockeko izarrak suntsitzeko mezua edonon zabaltzen zuen, eta Jagger-ek hautsak harrotzen zituen Studio 54 hartan. Argi zegoen zerbait egitekotan ondo ikusiok zen diskoa egin behar zela. Eta lortu egin zuten, noski, askotariko estiloak ba-

teratzen dituen bilduma batekin, “Miss You” temaren soinu proto-diskoarekin, “Lies” temaren punk-rockarekin, “Imagination” temako soula, “Far Away Eyes” temako countrya edo rock britainiarra, blues beltzaren oinordekoa, haiek inork baino hobeto interpretatu zutena, hala nola “Shattered” eta “Respectable” temetan agertzen dena. Eta, noski, baita “Beast of Burden” ere. Edo “Before They Make Me Run”. Tema handiak guztiak.

Kontua da berreskuratzeak poztasuna ematen digun arren –eta atsedena ematen dio jatorrizko binilozko kopiari, behin eta berriro entzun ondoren...- bikainena edizio honetan agertzen diren tema ezezagunak dira. Dozena bat abesti, jatorrizko diskoaren mailan daudenak. Sinestezi-na da orain eskura dagoen material hau aurretik ez ateratzea, sorta bikaina osatzen du eta. Urtea skotan argitaratu den rock and rolleko diskorik onena izango da agian. Eta hor zegoen, artxiboe-tan galduta. Rock biziotsua, etxeko marka, askok arrakastarik gabe imitatu nahi izan dutena. Eta guztiaren osagarri, dvd-an beste kontzertu bat argitaratu da, hain zuzen ere, *Some Girls* aurkez-teko birakoa, Fort Worthen (Texas), 78ko uztai-lean. Emanaldi bikaina, estilo zaharrean filmatu-ta, etorkizunak ekarri ahal digunaren inguruan irrika berezia sortzen duena.



## “LUISA MILLER”



2012. urtearen hasieran, eta “Tutto Verdi” programarekin jarraituz (Busettoko maisuaren 34 lanetako 15 antzestu dira), OLBEK, hamasei urteko hutsunearen ostean, 1849an Napoliko San Carlo Antzokian estreinatutako opera hau taularatu du. Lana konpositore bikainaren bizimoduko aldi oparoaren amaieran sortuta dago (hamaika urtetan hamabost opera sortu zituen), eta lehenengo urteetan harrera oso ona izan zuen. Gaur egun Verdiren lanen artean gutxien antzesten dena da, eta antzerki musikalaren berpizkunde modernoan eta mota honetako proiektuetan soilik du tokia. Izan ere, mota honetako proiektuetan honelako bitxiei hautsa kendu eta programetan sartu dira.

Hiru ekitaldiko drama musikala da. Italiar libretoa Salvatore Cammaranorena da, eta Friedrich von Shiller-en Kabale und Liebe (Intriga eta maitasuna) lanean oinarrituta dago. Leinuaren harrotasunak eta handikeriak menderatutako aita baten eta bere mendeko maltzurari buruz hitz egiten ditu. Biak elkar maite duten bi gazte

banatzen ahalegintzen dira, eta nahi gabe, maitaleen heriotza eragingo dute. Lanaren arrakastaren giltzarria bilatu behar dugu egileak bere operari buruz emandako definizioan, “drama burgesa”, eta egilea klanean gehituz ituen musika-berrikuntzetan. Hain zuzen ere, une honetan Verdik konposizio-heldutasunaren bidea abiatu zuen.


Podiumean, Ricardo Frizza musika-zuzendari italiarra, italiar erreperatorioan jantzita dagoena. Szegedeko Orkestra Sinfonikoa gogo handi zeta esku seguruarekin gidatu zuen, musika eta drama harmoniaz eta kolorez orekatuz.

Zenbait antzokiren artean egindako ekoizpen eszenikoek, kasu honetan bezala (Teatro Regio di Parma, Teatro Regio di Torino eta Teatro Comunale di Módena), galdutako lanak berreskuratzen lagundu dute. Opera hau Denis Kriefek asmatutako antzerki-ekoizpenaren bidez taularatu da berriro. Bera arduratu zen eszena-zuzendaritzaz, eszenografiez, eta jantzi modernoez. Horrez gain, diseinu geometrikoak zituzten irudiak gehitu zituen, osagai gutxi, eta basoen eta paisaien irudiak agertokiaren atzealdean jarri zituen, istorioari lotutako muntaketa neurritsu baina abangoardista sortuz, baina ondo argitu gabe.

Aktoreen zerrendan Fiorenza Cedolins soprano italiarra egon zen, OLBEren denboraldietan azken urte hauetan ohikoa dena. “Luisa Miller” hunkigarria antzestu zuen, eta tinbre otzan eta lirikodun ahots delikatu eta liluragarria erakutsi zuen, teknika eta segurtasun handiarekin (koloraturak, filatuak, txioak...). Une batzuetan hedadura eta energia gutxi zituela iruditu arren, kanatu dramatikoaren errezitala eskaini zuen.

OLBE debutu egiten zuen Fabio Sartori italiar tenorraren “Rodolfo” pertsonaiak indar emozional handi aizan zuen eta kantu-ederetasuna erakutsi zuen, tinbre argian eta kolore ederrekoan oinarritua. Erregistroaren eremu altuetan soltura trebetasunez mugitu zen. Gaueko txaloaldirik handiena “Oh! Fede negar potessi .... Quando le Sere al Placido” ariaren interpretazioarekin lortu zuen.

“Miller” pertsonaia Juan Jesús Rodríguez baritono huelvarrak antzestu zuen. Musika-ildo bikaineko baritonoak fraseatze erakargarria du, testuaren deklamazioan adierazgarri aizan zen, eta presentzia eszeniko handi aizan zuen. Ahots-emari handia, teknika oso zehatza eta hedadura zabala



Opera



erakutsiz ituen. Bereziki nabarmenak izan ziren alabarekin egindako duoa eta operaren amaiera loriatsua, Luisa eta Rodolfo-ekin batera egindako azken tertzetoko apoteosikoa.

Operako "maltzurren" irudiek operako gertaeren barruan leku nabarmena dute. Abeslarien hierarkiaren arabera, "Conde Walter" pertsonaiari paper nagusia egokitu behar zitzaion, baina ikuspuntu dramatikotik, "Wurm"en irudia interesgarriagoa zen. OLBE debutatu egiten zuten espainiar baxuak, Felipe Bouk, interpretazio handia egin zuen eszenari zein musikari dagokienez. Oso trinkoa izan zen "Wurm" pertsonaiaren interpretazioa, une batzuetan estortsioa egiten baitio "Luisa" gaixoari, eta beste batzuetan mendekoa eta beldurtia baita "Conde Walter" pertsonaiarena urrean. Baxuarena hots indartsu eta adierazkorra duela erakutsi izuen. Aitzitik, OLBE debutatu egiten zuten Ricardo Zanellato italiarraren interpretazioa ez zen on aizan. Abeslariak bolumen urria eta ahots-distira gutxi duela erakutsi zuen.



Bakarlariekin amaitzeko, Giovanna Lanza italiar mezzo-sopranoak interpretazio handia egin zuen "Duquesa Federica" papera. Nortasun indartsua erakutsi zuen eszenan zein ahotsean, musikako notak gorputzarekin adierazi zituen, eta mezzorearen tonalitate ilun iluna erakutsi zuen.

Berriro ere Bilboko Operaren Abesbatza azpimarratu behar dugu. Lan handia egin zuen eszenan zein musika arloan.

Laburtzeko, askoz gehiagotan taularatu beharko litzatekeen lan baten antzeppen handia.

#### "Luisa Miller"

**Aktoreen zerrenda:** Fiorenza Cedolins (s); Fabio Sartori (t); Juan Jesús Rodríguez (b); Ricardo Zanellato (bj); Felipe Bou(bj); Giovanna Lanza (mzz); Bilboko Operaren Abesbatza; Szegeko Orkestra Sinfonikoa; Eszena-zuzendaritza: Denis Krief; Musika-zuzendaria: Ricardo Frizza; Non, Euskalduna Jauregia.



Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: [kultura@icasv-bilbao.com](mailto:kultura@icasv-bilbao.com)

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: [kultura@icasv-bilbao.com](mailto:kultura@icasv-bilbao.com)



# Disjurex



Su Librería Jurídica

SI ES JURÍDICO, ECONÓMICO, EMPRESA, Y OPOSICIONES, ¡ LO TENEMOS !

Su mayor librería jurídica en internet



Podrá consultar más de 35.000 obras, por títulos, materias, editoriales, autores y palabras clave.

ÚNICO TELÉFONO para todas las editoriales Jurídicas Españolas. 944 255 220 ó 902 540 992.

**LIBRERÍA PRESENCIAL.** Exposición y venta de las últimas novedades y fondo de referencia de las principales Editoriales Jurídicas, Economía y de Empresa.

**LIBRERÍA VIRTUAL:** [www.disjurex.es](http://www.disjurex.es). Según los datos del Consejo Vasco de La Abogacía, somos la página web más visitada y mejor valorada en el sector Jurídico. **Descuento 5 % en todas las obras.**

### INFORMACIÓN BIBLIOGRÁFICA:

Envío periódico de correos electrónicos con la lista de las **NOVEDADES** relacionadas con las áreas de trabajo que nos solicitan. Actualmente enviamos a 103.000 clientes este valioso instrumento de información.

**BOLETÍN DE ACTUALIDAD Y CONSEJOS:** Realizado por expertos del sector de Consultoría de Despachos Profesionales, enviamos semanalmente un correo electrónico de recopilación de noticias y novedades legislativas, totalmente gratuito.

**ASESORAMIENTO EN OBRAS JURÍDICAS:** Nosotros no despachamos libros. Desde el año 1987 estamos visitando bufetes e instituciones, por lo que nos resulta muy fácil detectar sus necesidades.

Si desea asesoramiento sobre libros jurídicos, cuente con nosotros, estamos muy cerca de Usted

[www.disjurex.es](http://www.disjurex.es)

Descuentos especiales para Estudiantes, Profesores, Práctica Jurídica y Asociación de Jóvenes Abogados

Distribuidor exclusivo de: Academia Vasca de Derecho y AD Concordiam

SÍGUENOS EN:



Librería Exposición y Venta

A 100m. del Palacio de Justicia Frente al Ilustre Colegio de Abogados de Bizkaia



Disjurex

Alameda Mazarredo, 15 Bajo  
48001 - Bilbao - Vizcaya  
Teléfono: 902 540 992 - 944 255 220  
Fax: 902 540 993 - 944 245 811  
E-mail: [clientes@disjurex.es](mailto:clientes@disjurex.es)  
Librería Virtual: [www.disjurex.es](http://www.disjurex.es)

Horario comercial en librería de Lunes a Viernes de 9:30 AM a 20:00 PM, ininterrumpidamente.

SERVICIO DE ATENCIÓN PERSONALIZADA Y CONOCIMIENTO DE LAS OBRAS QUE COMERCIALIZAMOS

THOMSON REUTERS

**ARANZADI**

# ¿QUIÉN DICE QUE A LOS **ABOGADOS** SÓLO NOS GUSTAN LOS TOCHOS?

**ARANZADI FORMACIÓN** E-LEARNING ofrece cursos exprés online para abordar cuestiones jurídicas actualizadas y específicas, aplicables en tu día a día. Rentabiliza tu tiempo gracias a la capacidad de síntesis y al riguroso análisis de los profesionales más prestigiosos en cada disciplina.

Excelencia Thomson Reuters Aranzadi,  
líder en formación jurídica.

125€/curso  
Oferta de  
lanzamiento  
10% dto.

¡INFÓRMATE! T. 902 444 144  
aranzadi.formacion@thomsonreuters.com  
[www.aranzadiformacion.es](http://www.aranzadiformacion.es)



THOMSON REUTERS